

Euskal Autonomia Erkidegoko  
eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa  
**euskararen egoera**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Siadeco<sup>x</sup>  
ikerketak aplikatua

# Aurkibidea

Laburpena .....	3
1 Sarrera .....	16
2 Helburuak eta metodologia .....	18
3 Zertaz ari gara? .....	21
3.1 Eremu sozioekonomikoaren egitura.....	22
4 Zer egin da? .....	35
4.1 Lehen Euskara Planak .....	36
4.2 Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN).....	38
4.3 LanHitz programa .....	38
4.4 Bikain ziurtagiria .....	39
4.5 Bai Euskarari.....	40
4.6 Euslan .....	41
4.7 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa .....	42
4.8 Euskaragileak .....	44
4.9 Foru Aldundien eta Udalen ekimenak .....	45
4.10 Enpresen koordinazio-batzordeak eta bestelako egitasmoak .....	46
4.11 Erakunde publikoen eta entitate pribatuen arteko lankidetzak- hitzarmenak.....	46
5 Zer dakigu? .....	48
5.1 LanHitz programa .....	50
5.2 Bikain ziurtagiria .....	58
5.3 Bai Euskarari ziurtagiria .....	60
5.4 123/2008 Dekretua .....	62
5.5 Datu soziolinguistikoak.....	66
5.6 Establezimenduak eta enplegua, gune soziolinguistikoaren arabera.....	72
5.7 Euskararen ezagutza eta erabilera, jarduera-adarraren arabera.....	78
5.8 Euskararen erabilera, gune soziolinguistikoaren arabera .....	81
5.9 Euskararen erabilera, lurraldearen arabera .....	84
5.10 Euskara sustatzearen inguruko jarrera, gune soziolinguistikoaren arabera.....	85
5.11 Euskara sustatzearen inguruko jarrera, lurraldearen arabera .....	87
5.12 Hizkuntzaren industria .....	88
5.13 Esparru publikoa .....	89
5.14 Euskara aurrekontuak .....	89
5.15 Hezkuntza.....	93
5.16 Hizkuntz eskakizunak lan eskaintzetan.....	106
5.17 EAEko ekonomilarien ikuspuntua .....	109
6 AMIA analisia.....	110



Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plan Estrategikoa (2019-2023)-ren aurreko urrats gisa, euskarak eremu sozioekonomikoan bizi duen egoeraren inguruko diagnostikoa osatu du Siadeco Ikerketa Elkartek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta. Zeharkako informazio-iturri dokumentalak erabili dira horretarako.

Lehen atal honetan, diagnostikoaren ondorio nagusiak azaltzen dira, laburpen erara. Hasteko, informazio-iturri bakoitzetik bildutako daturik nabarmenenak laburbildu dira:

4

### JEGID-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, 2018

- 173.849 establezimendu eta 889.853 langile daude guztira EAEn.
- Establezimendu gehien duen jarduera-adarra merkataritza da: %22,9.
- Establezimenduen erdia baino gehiago Bizkaian dago: %52.
- Establezimendu gehien-gehienak oso txikiak dira: %73tan langile bat edo bi. 250 langiletik gorakoak %0,1 baino ez.
- Lanpostu gehien dituen jarduera-adarra manufaktura-industria da: %19,3.
- Lurraldeei dagokionez, Bizkaian soilik daude lanpostu gehiago merkataritzan industrian baino.
- Eskualdeka, hiru hiriburuen eskualdeak dira lanpostu gehien biltzen dituztenak. Durangaldea eta Debagoiena ondoren.
- 1 eta 2 gune soziolinguistikoetan merkataritzak sortzen du lanpostu gehien (%15), industriaren aurretik (%13,5). 3-4 gune soziolinguistikoetan, aldiz, industriak (%35), merkataritzaren aurretik (%13,5).

### Lan Merkatuaren Errolda, 2017

- Hiriburuen eskualdeetan zerbitzuen pisua handia da, lanpostuei dagokionez: %65,7 Gasteizen, %73,8 Donostian eta %82 Bilbon.
- Industriak enpleguan duen pisua nabarmen altuagoa da ondorengo eskualdeetan: Tolosaldea-Goierri %39,8, Debarrenan %39,3, Debagoienan %37,1 eta Durangaldean %36,4.
- Euskararen ezagutzari dagokionez, hezkuntza, herri administrazioak eta osasuna salbuespenak dira jarduera-adarren artean. Nabarmen altuagoa baita horietan.
- Industrian, langileen %42 euskalduna da, finantza-erakundeetan bezain beste. Nabarmen baxuagoa da ehunekoa ostalaritzan (%35) eta merkataritzan (%34).
- Euskararen erabilerari dagokionez, administrazioan, hezkuntzan eta osasunean izan ezik, oro har, jaitsi egiten da eguneroko bizitzatik lantokira. Ostalaritzan iguera txiki bat antzematen da.
- Euskaldunen ehunekoa altuagoa da, ikasketa-mailan gora egin ahala.

### Inkesta soziolinguistikoa, 2016

- 1 eta 2 gune soziolinguistikoetan euskara gehiago egiten da lankideekin, kontsumitzaile gisa baino (dendetan eta banketxeetan). Banketxeetan euskara gehiago egiten da dendetan baino.
- 3 eta 4 guneetan euskara gehiago egiten da kontsumitzaile gisa, lankideekin baino.
- Gainera, gehiago egiten da dendetan banketxeetan baino.
- Erabileran bakarrik ez, jarreretan ere eragina du inguruak, gune bateko eta besteko euskaldunen iritziak ez baitira berdinak, euskara sustatzearen inguruan.

### Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren lkerketa, 2014

- Sektore pribatuan, dekretua bete behar luketenen %22k baino ez du egiten.
- Betetze-maila altuena duen jarduera-adarra finantza-erakundeena da (%50). Maila baxuenak merkataritzan (%6) eta higiezin agentzietan (%2).
- Inguruko errealitate soziolinguistikoak eragina du: betetze-indize altuenak Gipuzkoan eta 4. gune soziolinguistikoan.
- Enpresa eta establezimendu guztien kezka nagusia da kontsumitzaile eta erabiltzaileen beharretara ahalik eta azkarren moldatzea.

### Eskola Jardueraren Estatistika, 2018 — EHU-Euskararen II Plan Gidaria, 2017

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzan D eredia oso zabaldua dagoen arren, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean euskaraz ikasten dutenak nabarmen gutxiago dira.
- Lanbide Heziketan %20koa da euskarazko matrikulazioa. Bereziki baxua ostalaritza eta turismoan (%10,6) eta merkataritzan eta marketing-ean (%6,1),
- Unibertsitatean, euskarazko matrikulazioen ehuneko baxuagoa da ikasketa teknikoetan eta enpresa eta ekonomia arlokoetan, hezkuntzakoekin edo osasun arlokoekin alderatuta.

### Ekonometroa, 2018

- Ekonomilariak euskara politikaren bidez babestu behar dela pentsatzen duten arren (%53,5), %58k dio euskararen erabilerari emandako balio ekonomiko mugatua dela, Euskaditik kanpo ez delako erabiltzen.

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2018

- Azken urteetan LanHitz programan esleipenek behera egin dute, baina eskaerak ere bai.
- Hasieran industriako enpresak gehiago ziren, baina 2009tik aurrera, zerbitzuetaoak gehiago dira.
- Badaude hainbat enpresa behin baino gehiagotan diruz lagunduak izan direnak.
- Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoa buruan dago. Eskualdeei dagokienez, Bilbo Handia eta Donostialdea, eta Debagoiena ondoren.
- Bikain ziurtagirian ere Gipuzkoako entitateak dira nagusi, baina zerbitzuetao entitateen pisua handiagoa da (%85,9), LanHitz programarekin alderatuta.

Informazio-iturri horiek guztiak uztartuta, jarduera ekonomikoaren sektore eta jarduera-adarrak, establezimendu kopurua, tamaina, enplegua, kokapen geografiko-soziolinguistikoa eta euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko informazioa konbinatu dira, besteak beste, ikerketa honetan, euskarak lan-munduan bizi duen egoerara hurbiltzeko. Horrek merkaturia segmentatzeko aukera eman dezake, politika orokorrez gainera, jarduera edo zonalde zehatzetara zuzendutako egitasmo eta plangintza bideratuak martxan jartzeko bidea irekiz. Horrela, bakoitzean esku hartu beharko duten erakunde eta entitateen mugaketa erraztu daiteke, ohiko koordinazio falta gainditzeko helburuarekin.

Izan ere, ikerlan honetan, 2014an Eusko Jaurlaritzak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailari buruz egindakoan bezala, agerian gelditu da sektorearen, gune soziolinguistikoen eta enpresa eta establezimendu motaren araberrako politikak planteatzea komeni dela. Eraginkortasunari begira, zaila baita guztientzat politika berdinak planteatuz arrakasta edukitzea.

Kontuan hartu behar da hizkuntza-errealitatea oso heterogeneoa dela EAEn, herritarren hizkuntza-gaitasuna oso ezberdina da zonalde batzuetatik besteetara, eta hori islatu egiten da eremu sozioekonomikoan. Aldea nabarmena izan zen duela bost urte, 123/2008 dekretuaren betetze-mailari buruzko ikerketan, eta konfirmatu egiten da azterlan honetan ere.

Horiek horrela, EAEko hiru lurraldeetako eskualdeen araberrako banaketan oinarrituta, bi multzo nagusi bereiz daitezke diagnostiko honen ondorio gisa, enpleguaren, jarduera ekonomiko nagusien eta errealitate soziolinguistikoen araberrera bilduta. Estrategikoak izan daitezkeen eskualde multzoak dira, lan-munduan euskara sustatzeko helburuari begira, arrazoi ezberdinengatik. Ondorengoak dira bi multzoak, eta horien ezaugarri nagusiak:

**1**

**Hiru hiriburuen eskualdeak**  
(Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Donostialdea) + **Behe Bidasoa**


- 2. gune soziolinguistikoko guneak dira (euskaldunak %20-%49 artean)
- Zerbitzuen sektoreak pisu handia du, eta baxua industriak
- EAEko establezimenduen eta enpleguaren hiru laurden biltzen dute guztira
- Enpresa eta establezimendu txikiak dira gehienak. Nabarmentzekoa da, hala ere, saltoki handiek eta frankiziek hartu duten pisua

**2**



**Durungaldea Bizkaian eta Deba eta Oriia ibaien arroak** Gipuzkoan (Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri)

- 3. gune soziolinguistikoko guneak dira (euskaldunak %50-%79 artean)
- Industriak pisu handia du
- EAEko enpleguaren %15 inguru biltzen dute guztira
- Tamaina handiko zenbait enpresa daude

## 1. irudia. Bi multzo nagusiak.



Iturria: Siadeco, 2019.

-  Hiriburuen eskualdeak eta Behe Bidasoa
-  Durangaldea, Deba eta Oria

EAEko enpleguaren %90 biltzen dute bi multzo handi horiek, baina agerikoa da, jarduera ekonomiko nagusiei eta errealitate soziolinguistikoei dagokienez, bien artean dagoen aldea. Horrenbestez, euskara sustatzeko neurriak hartzerakoan, neurri berdinak aplikatzea baino, errealitate ezberdin horiek kontuan hartzea eraginkorragoa izan daiteke.

Edonola ere, multzo bakoitzaren ezaugarrietan sakontzeak ikuspegi zehatzagoa ematen du. Kontuan hartuta, kasu askotan, deskribatutako ezaugarriak ez direla eskualde konkritu horiei dagozkienak, horietan nagusi diren jarduera-adarrei edo gune soziolinguistikoei buruzkoak baizik.

## 1. Hiriburuen eskualdeak eta Behe Bidasoa

Eskualde horietan zerbitzuen sektorea da nagusi, bai establezimenduen kopuruari dagokionez, baita enpleguari begira ere. Zerbitzuen artean, hain zuzen, salbuespen dira administrazioa eta hezkuntza arloa: sektore horietan euskaldunen ehunekoa handia da (%60 administrazioan eta %80 hezkuntzan), eta erabilerari dagokionez ere, langileak eguneroko bizitzan baino gehiago aritzen dira euskaraz lanean (%37,1etik %51,3ra hezkuntzan, beti edo gehienetan euskaraz). Gogoan hartu behar da, dena den, sektore publikoa ez dela eremu sozioekonomikorako plangintzaren helburu.

Aitzitik, merkataritzan eta ostalaritzan, herena pasatxo da euskalduna (atzerrian jaiotako langileen presentzia gero eta handiagoa da, ostalaritzan, bereziki. Gainera, ikasketa-maila baxuak dituztenen artean euskararen ezagutza ere baxuagoa da). Erabilerari dagokionez, ez da alde handirik antzematen eguneroko bizitzatik lan arlora. Kontuan hartu behar da Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-maila aztertuta, merkataritzak betetze-maila baxuena duela (saltoki ertain-handiak aztertu ziren ikerketa horretan, hiriburuetakoak eta biztanleria euskalduna %33tik gora duten udalerrietakoak).

### 123/2008 Dekretua betetzen dutenen eta betetzen ez dutenen ezaugarriak

Betetzen dutenak	Betetzen ez dutenak
- Kreditu-erakundeak dira nagusi (%54)	- Merkataritza establezimenduak dira nagusi (%46)
- Jendaurreko langileen ehuneko altuak du euskara-gaitasuna (%64)	- Jendaurreko langileen ehuneko txikiak du euskara-gaitasuna (%23)
- Euskarari garrantzi handia ematen diote gehienek (%79)	- Euskarari garrantzi handia ematen dioten enpresa gutxi (%35)
- Euskara erabiltzeak abantailak ditu ia denentzat (%93)	- Euskara erabiltzeak abantaila hirutik birezat (%66)
- Euskara erabiltzeko neurriak hartu dituzte bitik kasu batean (%52)	- Oso gutxitan hartu dituzte euskara erabiltzeko neurriak (%16)
- Euskara plana dago gehienetan (%61)	- Gutxik dute Euskara Plana (%16)


Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015.

123/2008 dekretuaren betetze-maila baxuena higiezinaren sektoreko establezimenduek daukate (%2,4). Nabarmetzeko modukoa da, gainera, sektore horretako arduradunek egindako hausnarketetako bat: "Euskarari ematen zaion garrantzia bat dator bezeroek ematen diotenearekin". Alegia, kontsumitzaile eta erabiltzaileen beharretara moldatzea dela haien lehentasuna, eta kasu horretan, ez dutela herritarren "presiorik" sentitzen.

Betetze-maila altuena finantza-entitateek daukate, alde nabarmenarekin, dena den, banketxeen eta aurrezki kutxen artean (betetze-maila altuagoa, bigarrenen kasuan). Edonola ere, eta horrekin lotuta, 2. gune soziolinguistikoan, herritarrek euskara gehiago erabiltzen dute finantza-entitateetan (%12,7) dendetan (%9,5) baino. Are gehiago, 2. gune soziolinguistikoko herritarrek euskara gehiago erabiltzen dute lankideekin (%14,9), kontsumitzaile gisa baino (lagunekin eta etxean baino gehiago ere bai).



**1. grafikoa.** Beti edo gehienetan euskaraz, eremu sozioekonomikoarekin lotutako egoeretan (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

Hortaz, errealitate soziolinguistiko horretan, badirudi euskarak presentzia handiagoa duela enpleguaren zati handi bat biltzen duten zenbait lantokitan (hezkuntza, administrazioa, osasuna etab., sektore publikoak, batez ere), kalean eta herritarrekiko harreman zuzena duten hainbat zerbitzutan baino. Horrenbestez, ahalegin berezia egin liteke eskualde horietako merkataritzan (saltoki handiak eta frankiziak barne, hartu duten garrantzia eta eragina kontuan hartuta), ostalaritzan eta bestelako zerbitzuetan, euskara zerbitzu hizkuntza gisa lantzeko. Nahiz eta momentuz lan hizkuntzan ez sakondu, zerbitzua euskaraz eskaintzeko urratsak emateak eragin handia eduki dezake, eskualdeon ezaugarriak kontuan hartuta.

**HPS-Erreferentzia Marko Estandarra: ZERBITZU HIZKUNTZA**

1/ Erakundearen irudia	2/ Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harremanak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak</li> <li>- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak</li> <li>- Ingurune digitala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua/produktua eskaintzeko orduan</li> <li>- Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua/produktuak eskaintzeko orduan</li> </ul>

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Alde horretatik, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagirien eredua eta esperientzia baliagarriak izan daitezke, onartuta haien eragina txikia izan dela, baina kontuan hartuta helburu kuantitatibo hutsez harago doazela ziurtagiri horiek. Udalek merkataritza arloan egindako lana ere nabarmendu behar da. Baina beharbada, erakunde eta entitate ezberdinen artean elkarlanean oinarritutako plangintza orokorrago bat falta izan da. Izan ere, lan-mundua euskalduntzeari begira, sarritan industriako enpresa handietan jartzen da arreta, ahaztuta EAEko enpleguaren zati handi bat hirietako zerbitzuetan ari dela lanean.

Zerbitzuei begira, hain zuzen, euskara sustatzeko lana bezeroarekiko harremanarekin eta zerbitzua euskaraz eskaintzearen balio erantsiak dakarren etekin komertzialarekin lotu daiteke. Halaber, gogoratu beharra dago indarrean dagoen araudia ez dela betetzen (123/2008 Dekretuaren eraginpekoak direnen %42k ez du ezagutzen, eta %22k baino ez du betetzen). Baina araudiak behartutakoa baino, interes komertzialak eskatutako sustapena gehiago komeni zaio euskarari, arrakastatsua izango bada. Alde horretatik, bezeroen presioa handitzeko neurriak hartzea ere eraginkorra izan daiteke. Establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko politikak planteatzearekin batera, kontsumitzaileen artean zerbitzua euskaraz jasotzeko beharra sortuz.

Gogoratu behar da euskara beste hizkuntzekin lehian dagoela, eta multzo honetako eskualdeetan nabarmena dela hori, atzerriko bisitarien hazkundearen eraginez. Merkataritzan eta ostalaritzan ingelesak, frantsesak eta beste zenbait hizkuntzek garrantzia hartu dute, eta testuinguru horretan, zerbitzua euskaraz ematea ez dago establezimendu askoren arduradunen lehentasunen artean. Ez hori bakarrik, ezin daiteke ahaztu merkatu digitalean hizkuntza handiek hartu duten garrantzia, eta gazteen artean, batez ere, kontsumitzerako orduan euskarak duen erreferentzialtasun eskasa. Horrek eragina dauka, kaleko kontsumo-ohituretan ere.


Edonola ere, lehiakortasunean eta errentagarritasunean soilik ez, irudian, markagintzan ere eragina du hautatzen den hizkuntzak. Bertako enpresa edo establezimenduek, euskara erabilita, bertakotasuna eta gertukotasuna adierazten dute, horrek dakarren balioarekin. Aldiz, multinazionalak, euskara erabilita, aniztasuna eta bertako kulturarekiko errespetua adieraz ditzakete. Horrenbestez, euskarak kanpo-irudian eduki dezakeen eragina ulertaraztea ere garrantzitsua izan liteke.

## 2. Durangaldea eta Deba eta Oria ibaien arroak

Aurreko eskualde multzoan ez bezala, 2. honetan, enpleguan industriak duen pisua handia da (%40 inguru). Horrekin lotuta, azpimarratzekoa da industria sektorean enplegatuen %42 dela euskalduna, finantza-erakundeetan bezain beste. Erabilerari dagokionez, aldiz, industriako langileek euskara gutxiago egiten dute lantokian eguneroko bizitzan baino (ia hiru puntu gutxiago).

Industriako lantegi handien kokapenarekin lotuta, errealitate hori ikuspuntu ezberdinetatik azaldu daiteke. Alde batetik, 3. gune soziolinguistikoa, lantokian baino euskara gehiago egiten da bai eremu pribatuan (lagunekin eta etxean), baita kontsumitzaile gisa ere (dendetan eta banketxeetan). Kalearekiko eta etxearekiko, beraz, erabilera jaitsi egiten da lantokietan.


**2. grafikoa.** Euskaldunak – Beti edo gehienetan euskaraz, egoera ezberdinetan (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

Erabilera baxuago hori lotuta egon daiteke enpresa munduan gaztelania, baina baita ingelesa eta beste zenbait hizkuntza zabaldu izanarekin, eta esportaziora bideratutako produkzio maila handiarekin. (Ekonomilarien Euskal Elkargoak argitaratzen duen Ekometroaren azken alean, inkestatuen ia %60k uste du euskararen balio ekonomikoa mugatua dela, Euskaditik kanpo ez delako erabiltzen).

**3. grafikoa.** Euskaditik kanpo erabiltzen ez den neurrian, euskararen erabilerari emandako balio ekonomikoa mugatua da (%)



Iturria: Ekonomilarien Euskal Elkargoa, 2018


Era berean, kontuan hartu behar da industrian langileak eskualde batetik bestera lekualdatzea ohikoagoa dela, zerbitzuetan baino (Gerta daiteke, adibidez, 2. gune soziolinguistikoko eskualde batetik 3. guneko lantegi batetara joatea lanera). Horrek lantegi barruko errealitate soziolinguistikoaren eta ingurukoaren arteko lotura aldatu dezake.

Hezkuntzaren eta formazioaren ikuspuntua ere kontuan hartu beharra dago. Industriak lotura handia du Lanbide Heziketarekin eta Unibertsitate-gradu tekniko-teknologikoekin. Alde horretatik, gogoratu behar da Lanbide Heziketan euskarak duen presentzia eskasa dela (matrikulen %20 da D eredukoa). Unibertsitatean ere, gradu tekniko-teknologikoetan euskarazko matrikulen ehuneko baxuagoa da hezkuntzarekin, osasunarekin edo gradu zientifikoekin alderatuz gero (Aldea txikiagoa da, dena den, Gipuzkoan).

Hortaz, Bigarren Hezkuntzara arte euskaraz ikasi duten gazte askok, lan-merkatura bidean jarri dituen azken etapan, erdaraz egin dituzte ikasketak. Horrela, ohikoa izan daiteke egunerokoan euskara erabili arren, lan-arloan hizkuntza ez menderatzea. Azpimarratu, halaber, helduen hezkuntzan eta langabeei zuzendutako formazioan euskarak ia ez duela tokirik edukitzen.

2. eskualde-multzoaren ezaugarriak kontuan hartuta, beraz, industriako enpresetan egin liteke ahalegina, euskara lan-hizkuntza gisa sustatzeko. Horretarako baldintza egokiak egon litezke, eta lantegi horietan biltzen den enpleguaren bolumena kontuan hartuta, eragin handia eduki lezake, lan-mundua euskalduntzeko helburuari begira. Kontuan hartuta, generoari dagokionez, eragin handiagoa izango duela gizonezkoengan, emakumezkoen pisua askoz txikiagoa baita industriako enplegatuen artean.

**4. grafikoa.** Biztanleria landunaren sektorea, sexuaren arabera (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

**HPS-Erreferentzia Marko Estandarra: LAN HIZKUNTZA**

1/ Barne komunikazioa eta lan-tresnak	2/ Pertsonen kudeaketa
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia</li> <li>- Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala</li> <li>- Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala · Baliabide informatikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonen kudeaketa</li> <li>- Laneko prestakuntza</li> </ul>
3/ Kanpo harremanak	4/ Kudeaketa sistema
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazioa</li> <li>- Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.</li> <li>- Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea</li> <li>- Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen/zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea</li> <li>- Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea</li> </ul>

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Enpresen Euskara Planak eta LanHitz moduko diru-laguntza programak bide egokia izan daitezke industrian euskararen erabilera sustatzeko. Azpimarratu behar da, gainera, planak ezartzen aitzindariak izan diren enpresa gehienak eskualde-multzo honetakoak direla. Are gehiago, erreferenteak sortzeko helburuarekin abian jarri diren Euslan edo Euskaragileak egitasmoetan parte hartu duten enpresa gehienak ere eskualde horietakoak dira: Elay, Copreci, Danobat, Goizper, JMA, Erreka, Orkli, Ulma, Ekin, Irizar etab. Ekimen horietan guztietan agerikoa da Mondragon Korporazioaren inplikazioa, eta etorkizunean ere funtsezko aliatu izan daiteke.

Kontuan hartu behar da, halaber, 4. gune soziolinguistikoko eskualde bakarrean (Markina-Ondarroa) kokatuta dauden zenbait enpresa ere erreferente izan direla zentzu horretan: Cikautxo, Eika, Maier. Bizkaian, beraz, Durangaldearekin batera, eraginkorra izan liteke eragin eremua Markina-Ondarroara zabaltzea (Industriaren pisua txikiagoa bada ere, baldintza soziolinguistiko oso egokiak dituelako).

Enpresa traktore horien guztien eta euskara planak lantzen eskarmentua duten aholkularitza enpresen esperientziaz baliatuta, baldintza egokiak dituzten eskualdeetako gainontzeko enpresetara zabaltzeko aukera handia egon liteke.

Enpresei begira, euskara sustatzeko lana enpresaren gizarte-erantzukizunarekin lotzeaz gainera, kudeaketa-sistema orokorrean integratutako hizkuntzen kudeaketarekin lotu liteke. Alde horretatik, Innobideak-Kudeabide moduko kudeaketa aurreratuaren inguruko diru-laguntza deialdietan euskararen kudeaketa txertatzea garrantzitsua izan liteke, genero-ikuspegia edo ingurumenari dagokiona integratu diren bezala, esate baterako.

Kasu honetan ere, enpresariak ez dute euskara behartuta sustatuko. Konbentziturata egingo dute, ulertzen baldin badute euskarak, hurbiltasun irudia ematearekin batera, kohesioa, identifikazioa eta motibazioa dakartzala, lan-harremanak hobetzen eta langileak gogobetetzen laguntzen duela. Eta batez ere, horren ondorioz, enpresaren produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko ere balio dezakeela. Interes ekonomikoak gidatuko du enpresariaren ekintza, eta marko horretan euskara txertatzean egon liteke gakoa.

Diagnostiko honetan planteatzen den moduan jarduera-adar eta eragin-eremu zehatzetara zuzendutako esku-hartzeak planteatzeko, behar-beharrezkoa izango da erakunde eta entitate ezberdinen arteko elkarlana: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, SPRI enpresa garapenerako euskal agentzia, Innobasque, Foru Aldundiak, udalak, garapen agentziak, enpresak, enpresarien elkarteak, merkataritza ganberak, merkataritza elkarteak, kontsumitzaileen elkarteak, euskalgintza, sindikatuak... Baina lankidetzaren horrek arrakasta izan dezan, erakunde eta entitate arteko talde eragile bat beharko du, Eusko Jaurlaritza gidari izango duena.

Bukatzeko, azpimarratu beharra dago diagnostiko honek zeharkako informazio-iturri ezberdinen konbinazioa izan duela oinarri, eta prozesu horretan, agerian gelditu dela lan-munduan euskarak duen egoerari buruzko informazio falta. Hori dela eta, etorkizunean diagnostiko sakonagoak lantzeko eta eremu sozioekonomikoaren euskalduntzearen jarraipena egin ahal izateko, gaiaren inguruko Ikerketa-ildoak zabaltzea eta datu-bilketa berriak egitea lagungarria izan liteke.

Biztanleria landunaren ezagutzaren eta erabileraren inguruko datuak biltzen hasi da Lan Merkatuaren Errolda, eta bilakaera aztertzeke aukera egongo da hurrengo inkestetan. Baina beste zenbait Ikerketa-ildo lantzea ere interesgarria izan daiteke. Alde batetik, bezero eta erabiltzaileen ikuspuntua bilduko duena, enpresa eta establezimenduek erabilitako hizkuntzak haien kontsumoan, aukeretan eta erabakietan duen eraginaren inguruan. Bestetik, enpresari eta establezimenduetako arduradunena, hizkuntza bat hautatzera daramatzaten arrazoiei buruz.

Onura sozialaz gainera, zerbitzu edo lan hizkuntza gisa euskara erabiltzeak enpresa eta establezimenduentzat ekar dezakeen etekin ekonomikoaren inguruko datuak biltzea ere egokia izan liteke, euskara lehiakortasunarekin lotzeko. Eremu sozioekonomikoari zuzendutako hizkuntza-plangintzak lantzeko eta egokitzeko kontuan hartzeko moduko ikuspuntuak dira aipatutakoak.



# 1. Sarrera



Eremu Sozioekonomikoaren Euskararen Plan Estrategikoa (2019-2023) osatzeko prozesu partekatua sustatu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2018an. Enpresa-munduko ordezkariak, sindikatuek, garapen agentziek, finantza-entitateek, merkataritza sektoreak, kontsumitzaile elkarteak, eta hezkuntzako eta euskalgintzako eragileek parte hartu dute, besteak beste, administrazioko ordezkariekin batera.


Euskara sustatzearen inguruko gogoeta egiteaz gainera, 2019-2023 epean garatu beharreko estrategiak planifikatu dira prozesu horretan. Eta ondorioetako bat izan da euskarak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoan duen egoeraren inguruko diagnostiko baten beharra. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, Siadeco Ikerketa Elkarteak osatu du diagnostiko hori, zeharkako informazio-iturri dokumentalen lanketaren bidez.

Kontuan hartu beharra dago lan-munduaren diagnostikoan herri administrazioak eta hezkuntza eta osasun publikoak ere aztertu direla, baina ez direla EAEko Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plan Estrategikoaren helburu. Izan ere, horietan badaude euskararen erabilera zabaltzera bideratutako berariazko plangintzak. Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plan Estrategikoari dagokionez, esparru pribatuan eragitea du helburu.



## 2. Helburuak eta metodologia

Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoa identifikatzea, karakterizatzea eta dimentsionatzea izan da diagnostiko honen helburu nagusia. Hori kontuan izanda, hiru galdera nagusik eratzten dute diagnostikoaren ardatza:



Zeharkako informazio dokumentalaren, aldez aurretik jasota dauden datuen ustiaketa eta analisia egitea izan da Siadecok erabili duen lanerako metodologia. HPSk berak eskainitako datuez gainera, bestelako informazio-iturri ofizialetatik eskuratutakoak baliatu dira, euskarak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoan bizi duen egoeraren inguruko argazki ahalik eta osoena eskaintzeko asmoz.

**Diagnostikoa osatzeko erabilitako informazio-iturri nagusiak:**

- Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018
- Eustat-Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016
- Eustat-Eskola jardueraren estatistika, 2018
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-Inkesta Soziolinguistikoa, 2016
- Eusko Jaurlaritza-Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren ikerketa, 2014
- EHU-Euskararen II Plan Gidaria, 2017
- Ekonomilarien Euskal Elkargoa-Ekonometroa, 2018
- Lanbide, 2019



### 3. Zertaz ari gara?

### 3.1 Eremu sozioekonomikoaren egitura

Euskalgintzaren kezka nagusietako bat izan da eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko urratsak ematea, hizkuntza jardunean eragin handia izan dezakeelakoan, herritarrek lanean ematen dituzten orduengatik eta lan-mundutik datozen zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile ere badiren aldetik. Baina zertaz ari gara, eremu sozioekonomikoa aipatzen denean? Zein dira lan-munduaren dimentsioa eta ezaugarriak, Euskal Autonomia Erkidegoan?

Atal honetarako garrantzitsua da, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak egiten duen bereizketaren arabera, enpresa eta establezimendua ezberdintzea: enpresa batek EAEn lantegi bakar bat izan dezake, edo merkataritza-kateen moduan, adibidez, denda ugari. Enpresa bakarraz ari gara bi kasuetan, baina lehenengoan establezimendu bat dago soilik, eta bigarrenean establezimendu ugari. Ikerketa honetan, une bakoitzean egokiena den sailkapena erabiliko da, establezimenduez edo enpresa eta entitateez ari garen zehaztuz, beti ere.


Bestalde, langileak dituen edozein pertsona juridiko edo fisiko hartzen du Eustat-ek enpresatzat, herri administrazioak eta hezkuntza eta osasun publikoak barne. Edonola ere, diagnostikoan kontuan hartuko diren arren, plangintzak ez du horietan eragitea bilatzen, eremu pribatuan baizik.

#### Establezimenduak

Eustat-en Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)ren arabera, 173.849 establezimendu daude, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoan. Horien erdia pasatxo Bizkaian (%51,9), herena Gipuzkoan (%34) eta gainerakoak Araban (%14).

JESN-Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren A21 sailkapenaren araberako jarduera-adar nagusia, establezimendu kopuruari dagokionez, merkataritza da: 39.738 establezimendu dira merkataritzakoak, guztien %22,9. Hiru lurraldeetan da jarduera-adar nagusia, gaur egun, establezimendu kopuruari erreparatuta, beti ere. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (%12,9 EAEn) eta Eraikuntza (%11,7 EAEn) dira hurrengoak, alde txikiekin, lurralde batetik bestera.

5. grafikoa. Establezimendu gehien duten jarduera-adarrak (A21), lurraldearen arabera (%)



Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018. Siadecok landua

**1. taula.** EAEko establezimenduak eta jarduera (A21), lurralde historikoaren arabera

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	2.157	8,81	1.926	3,26	1.879	2,08	5.962	3,43
B Ateratze-industriak	6	0,02	16	0,03	24	0,03	46	0,03
C Manufaktura-industria	1.877	7,66	4.350	7,35	4.733	5,25	10.960	6,30
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	40	0,16	57	0,10	69	0,08	166	0,10
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	68	0,28	152	0,26	134	0,15	354	0,20
F Eraikuntza	2.523	10,30	7.160	12,10	10.735	11,90	20.418	11,74
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	5.127	20,93	13.539	22,89	21.072	23,36	39.738	22,86
H Garraio eta bilketa	1.427	5,83	3.457	5,84	6.117	6,78	11.001	6,33
I Ostalaritza	2.012	8,21	4.477	7,57	7.334	8,13	13.823	7,95
J Informazioa eta komunikazioak	419	1,71	1.045	1,77	1.948	2,16	3.412	1,96
K Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	643	2,63	1.548	2,62	2.469	2,74	4.660	2,68
L Onibar-jarduerak	228	0,93	1.009	1,71	1.831	2,03	3.068	1,76
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	2.787	11,38	7.626	12,89	12.030	13,34	22.443	12,91
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	977	3,99	1.988	3,36	3.038	3,37	6.003	3,45
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	243	0,99	404	0,68	528	0,59	1.175	0,68
P Hezkuntza	847	3,46	2.396	4,05	3.249	3,60	6.492	3,73
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	1.321	5,39	3.289	5,56	6.055	6,71	10.665	6,13
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	537	2,19	1.473	2,49	1.940	2,15	3.950	2,27
S Bestelako zerbitzuak	1.254	5,12	3.248	5,49	5.011	5,56	9.513	5,47
Jarduera guztira	24.493	100,00	59.160	100,00	90.196	100,00	173.849	100,00
% hor		14,09		34,03		51,88		100,00

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua




## Tamaina

Enplegu-geruzak establezimenduen tamainaren irudia ematen du, eta ondorioa da EAEko establezimendu gehien-gehienak oso txikiak direla. Izan ere, establezimenduen hiru laurdenetan, ia, langile bakarra edo bi langile aritzen dira, gehienez (%73,4). 3-5 langilekoak establezimenduen %13,8 dira. %5etik beherakoa da hurrengo multzoen pisu erlatiboa. 250-499 langile dituzten establezimendu handiak guztien %0,1 baino ez dira.

25

**6. grafikoa.** 50 langiletik gorako establezimendu gehien duten jarduera-adarrak (% zenbat den 50etik gorakoa)



EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua

**2. taula.** EAEko establezimenduak enplegu geruzaren arabera (% horizontalak)

	0tik 2ra	3tik 5era	6tik 9ra	10etik 14ra	15etik 19ra	20tik 49ra	50etik 99ra	100etik 249ra	250etik 499ra	>= 500	Guztira	Establezimen- duak guztira
A Nekazaritza, abeltz., basogintza eta arrantza	85,0	10,9	1,9	0,6	0,9	0,5	0,1	0,1	0,0	0,0	100,00	5.962
B Ateratze-industriak	23,9	26,1	21,7	13,0	10,9	4,3	0,0	0,0	0,0	0,0	100,00	46
C Manufaktura-industria	47,4	16,5	9,9	6,8	4,2	9,5	3,0	2,0	0,4	0,2	100,00	10.960
D Energia elekt., gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	52,4	14,5	10,2	9,0	6,0	3,6	1,8	1,8	0,6	0,0	100,00	166
E Ur hornidura, saneamendu jard., hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	36,2	18,1	12,4	6,5	4,8	15,0	3,7	2,8	0,3	0,3	100,00	354
F Eraikuntza	84,7	8,7	2,9	1,5	0,7	1,2	0,2	0,1	0,0	0,0	100,00	20.418
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	72,6	17,0	5,3	2,1	0,9	1,7	0,2	0,1	0,0	0,0	100,00	39.738
H Garraio eta bilketa	81,0	8,6	4,2	2,0	1,2	2,0	0,6	0,3	0,1	0,0	100,00	11.001
I Ostalaritza	57,2	26,1	9,4	3,6	1,7	1,7	0,2	0,1	0,0	0,0	100,00	13.823
J Informazioa eta komunikazioak	74,9	9,6	5,2	2,7	1,8	3,6	1,1	0,8	0,2	0,0	100,00	3.412
K Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	63,5	23,1	8,5	2,6	0,8	1,1	0,3	0,2	0,0	0,0	100,00	4.660
L Onibar-jarduerak	88,7	9,2	1,7	0,3	0,1	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	100,00	3.068
MJard. profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	85,0	8,0	3,0	1,3	0,7	1,4	0,4	0,2	0,0	0,0	100,00	22.443
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	68,6	12,4	6,4	3,0	2,0	3,6	1,8	1,3	0,6	0,2	100,00	6.003
O Herri admin. eta defentsa; derri-gorrezko giz. seg.	24,7	16,3	11,6	8,5	5,6	16,3	7,8	6,6	1,5	1,0	100,00	1.175
P Hezkuntza	62,1	11,4	6,1	4,2	2,1	7,4	5,1	1,4	0,1	0,0	100,00	6.492
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	74,5	11,3	4,5	2,7	1,4	3,6	1,2	0,6	0,2	0,1	100,00	10.665
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	75,4	12,7	4,3	2,5	1,1	2,9	0,9	0,2	0,0	0,0	100,00	3.950
S Bestelako zerbitzuak	78,1	16,4	3,4	0,9	0,4	0,6	0,2	0,1	0,0	0,0	100,00	9.513
Jarduera guztira	73,4	13,8	5,1	2,4	1,3	2,6	0,8	0,4	0,1	0,0	100,00	173.849

EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera

26


Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua

## Enplegua

Establezimenduen kopuruarekin gertatzen den bezala, enplegudunen erdia Bizkaiko establezimenduetan ari da lanean, herena Gipuzkoan eta gainerakoak Araban (%16,7). Guztira 889.853 enplegatu daude EAEko 173.849 establezimenduetan.

Nolanahi ere, EAEko lanpostuen ehuneko handiena biltzen duen jarduera-adarra manufaktura-industriarena da (%19,3), askoz ere establezimendu gehiago dituen merkataritza gaindituz (%14,4). Lurraldeka, berdina gertatzen da Araban eta Gipuzkoan, ez ordea, Bizkaian. Bertan ia pareko daude, baina merkataritza industriaren gainetik. Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak daude hirugarren tokian, enpleguan duten pisu erlatiboari dagokionez (%9,6 EAEn).

**7. grafikoa.** Enplegatu gehien duten jarduera-adarrak (A21), lurraldearen arabera (%)



Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua

**3. taula.** EAEko enplegudunak, establezimenduaren jarduera (A21) eta lurralde historikoaren arabera

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	3.690	2,48	4.727	1,06	4.057	1,37	12.474	1,40
B Ateratze-industriak	51	0,03	198	0,04	98	0,03	347	0,04
C Manufaktura-industria	37.808	25,43	65.711	14,77	67.901	22,91	171.420	19,26
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	195	0,13	1.442	0,32	281	0,09	1.918	0,22
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	1.363	0,92	2.645	0,59	2.348	0,79	6.356	0,71
F Eraikuntza	6.345	4,27	28.285	6,36	15.875	5,36	50.505	5,68
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	18.494	12,44	67.057	15,07	43.250	14,60	128.801	14,47
H Garraio eta bilketa	6.258	4,21	22.612	5,08	13.240	4,47	42.110	4,73
I Ostalaritza	8.968	6,03	30.267	6,80	21.532	7,27	60.767	6,83
J Informazioa eta komunikazioak	2.416	1,63	13.416	3,02	5.055	1,71	20.887	2,35
K Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	2.047	1,38	9.665	2,17	5.069	1,71	16.781	1,89
L Onibar-jarduerak	527	0,35	2.889	0,65	1.532	0,52	4.948	0,56
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	8.067	5,43	35.794	8,05	20.370	6,87	64.231	7,22
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	9.921	6,67	39.962	8,98	15.189	5,13	65.072	7,31
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantz	10.627	7,15	21.112	4,75	12.814	4,32	44.553	5,01
P Hezkuntza	11.731	7,89	36.084	8,11	25.658	8,66	73.473	8,26
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	14.546	9,78	42.888	9,64	28.373	9,57	85.807	9,64
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.635	1,77	7.842	1,76	5.734	1,94	16.211	1,82
S Bestelako zerbitzuak	2.977	2,00	12.264	2,76	7.951	2,68	23.192	2,61
Jarduera guztira	148.666	100,00	444.860	100,00	296.327	100,00	889.853	100,00
% hor		16,71		49,99		33,30		100,00

28


EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa:  
euskararen egoera

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua

Lurraldez harago, eskualde bakoitzean guztira zenbat lanpostu dauden bilduta dator hurrengo taulan. Argitu beharra dago eskualdeen arabera enplegua ez datorrela bat herrialde eta EAE mailakoarekin. Arrazoa da haietako zenbait ez dela herrialde bakoitzerako determinatu. Edonola ere, kokapenean sakontzeko baliagarria da informazioa.

EAEko hiru hiriburuak kokatuta dauden eskualdeak dira enpleguaren ehuneko handiena biltzen dutenak. Nabarmen gaineratik, hala ere, Bilbo Handia, EAEko enpleguaren %38,9rekin. Donostialdeaz (%16,5) eta Arabako Lautadaz (%13,1) gain, nabarmentzekoa da enpleguari dagokionez Durangaldea duen pisua (%5,1), eta Gipuzkoako eskualde gehienena: Debagoiena (%3,5), Behe Bidasoa (%3), Urola Kosta (%3) eta Goierri (%2,9).

**8. grafikoa.** EAEko enpleguak establezimenduetan eskualdearen arabera (%)



Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua

4. taula. EAEko enpleguak establezimenduetan eskualdearen arabera

	Pertsona enpleguak	
	Kop	%
Arabako Ibarrek	3.721	0,42
Arabako Lautada	116.096	13,13
Arabako Mendialdea	1.440	0,16
Arratia Nerbioi	7.909	0,89
Behe Bidasoa	26.782	3,03
Bilbo Handia	344.157	38,91
Debabarrena	20.412	2,31
Debagoiena	30.910	3,49
Donostialdea	145.735	16,48
Durangaldea	45.251	5,12
Enkarterriak	8.012	0,91
Arabar Errioxa	7.893	0,89
Gernika-Bermeo	13.501	1,53
Goierrri	26.006	2,94
Gorbeia Inguruak	4.847	0,55
Kantauri Arabarra	13.173	1,49
Markina-Ondarroat	8.933	1,01
Plentzia-Mungia	15.433	1,74
Tolosaldea	17.918	2,03
Urola Kosta	26.329	2,98
Guztira	884.458	100,00

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018 Siadecok landua


Eskualde bakoitzean sektore bakoitzean lanean ari diren enplegatuen kopuruari buruzko datuak eman ditu Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren Lan Merkatuaren Erroldak (Kontuan hartu behar da, dena den, eskualdeen sailkapena mugatuagoa dela. Ondorengo taulan azalduta dator).

LMEko eskualdeen eta JEGIDekoen arteko alderaketa

LME	JEGID
Gasteiz	Arabako Lautada
	Arabako Mendialdea
	Arabako Ibarrek
	Arabar Errioxa
Aiara	Kantauri arabarra
	Gorbeia inguruak
Eskuinaldea	Bilbo Handiaren barruan dago
Bilbo	Bilbo Handiaren barruan dago
Ezkerraldea	Bilbo Handiaren barruan dago
	Enkarterriak
Bizkaia-Kostaldea	Plentzia-Mungia
	Gernika-Bermeo
	Markina-Ondarroa
Durangaldea	Durangaldea
	Arratia-Nerbioi
Donostialdea	Urola Kosta
	Donostialdea
	Behe Bidasoa
Tolosa-Goierri	Tolosaldea
	Goierri
Debagoiena	Debagoiena
Debarrena	Debarrena

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda. Siadecok landua, 2019

**9. grafikoa.** Biztanleria landunaren sektore ekonomikoa, eskualdearen arabera (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua




**5. taula.** EAEko 16tik 64 urte bitarteko biztanleria landuna ari den sektore ekonomikoa, eskualdearen arabera (11 eskualde)

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Gasteiz	2.627	2,2	31.782	26,5	6.662	5,6	78.684	65,7	119.755	100,0
Aiara	517	3,0	5.662	32,7	545	3,1	10.613	61,2	17.337	100,0
Eskuinaldea	215	0,3	10.291	15,3	3.083	4,6	53.652	79,8	67.240	100,0
Bilbo	905	0,7	16.494	12,1	7.135	5,2	111.764	82,0	136.298	100,0
Ezkerraldea	447	0,3	33.699	21,6	10.837	7,0	110.834	71,1	155.817	100,0
Bizkaia-Kostaldea	1.463	2,6	12.805	22,7	2.812	5,0	39.432	69,8	56.511	100,0
Durangaldea	785	1,5	19.539	36,4	1.943	3,6	31.344	58,5	53.611	100,0
Donostialdea	1.406	0,7	41.613	20,5	10.110	5,0	149.798	73,8	202.928	100,0
Tolosa-Goierri	731	1,4	20.156	39,8	2.661	5,3	27.089	53,5	50.638	100,0
Debagoiena	51	0,2	10.144	37,1	1.425	5,2	15.716	57,5	27.337	100,0
Debabarrena	242	1,0	9.241	39,3	1.027	4,4	12.982	55,3	23.492	100,0
<b>Guztira</b>	<b>9.389</b>	<b>1,0</b>	<b>211.427</b>	<b>23,2</b>	<b>48.240</b>	<b>5,3</b>	<b>641.909</b>	<b>70,5</b>	<b>910.965</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

Biztanleria landunaren sexuaren arabera aztertuta, azpimarratzeko modukoa da emakume landun gehien-gehienak zerbitzuen sektorean ari direla (%87,8). Gizonezkoen erdia pasatxo (%55) da zerbitzuetan ari dena, baina nabarmentzekoa da, baita ere, gizonezkoen artean industriak duen pisu erlatiboa (%34,8).

**10. grafikoa.** Biztanleria landunaren sektorea, sexuaren arabera (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

**6. taula.** EAEko 16tik 64 urte bitarteko biztanleria landuna ari den sektore ekonomikoa, sexuaren arabera

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Gizonak	7.420	1,5	166.913	34,8	41.977	8,8	263.285	54,9	479.595	100,0
Emakumeak	1.969	0,5	44.514	10,3	6.263	1,5	378.624	87,8	431.370	100,0
<b>Guztira</b>	<b>9.389</b>	<b>1,0</b>	<b>211.427</b>	<b>23,2</b>	<b>48.240</b>	<b>5,3</b>	<b>641.909</b>	<b>70,5</b>	<b>910.965</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

Biztanleria landunaren sexua eta adin-tartea gurutzatuta, badirudi emakumezkoak beranduago sartzen direla lan-merkatuan, 25 urtetik beherakoen artean gizonezkoen ehunekoa altuagoa baita. 25-44 urte artean, aldiz, emakumeen ehunekoa bi puntu eta erdi altuagoa da.

**7. taula.** EAEko 16tik 64 urte bitarteko biztanleria landunaren adin-tartea, sexuaren arabera

	< 25 urte		25-44 urte		45-64 urte		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Gizonak	21.085	4,4	225.066	46,9	233.444	48,7	479.595	100,0
Emakumeak	16.251	3,8	212.558	49,3	202.560	47,0	431.370	100,0
<b>Guztira</b>	<b>37.336</b>	<b>4,1</b>	<b>437.624</b>	<b>48,0</b>	<b>436.005</b>	<b>47,9</b>	<b>910.965</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

 4. Zer egin da?

Behin EAEko eremu sozioekonomikoaren ezaugarriak aztertuta, eremu horretan euskararen erabilera sustatzeko eragile publiko eta pribatu ezberdinek azken hamarkadetan hartu dituzten neurriak eta martxan jarri dituzten egitasmo ezberdinak aztertuta datoz segidan.

1970eko hamarkadaren amaierakoak dira eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko lehen ahaleginak. Gune euskaldunetako enpresa ertain-handien eta batez ere, kooperatiben eskutik eman ziren. Dena den, han-hemenka egindako saiakera solteak izan ziren egitasmo aitzindari horiek, lan-metodologia eta planteamendu antolaturik gabeak. 1990era arte ez zen planifikatutako proiektu sendorik egon.

“Euskararen normalizazioa enpresa-munduan. Oinarrizko irizpideak” txostena argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak 1990ean. Gomendio horiek jarraituz, enpresa-munduan euskara normalizatzeko irizpideak eta metodologiak lantzeari ekin zion Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN; gaur egun, HPS). Euskara Planak arrakastaz eta eragin sozial handiz aurrera ateratzeko, tamaina jakin bateko enpresak izatea (50 langiletik gorakoak), plantila ahalik eta gazteena edukitzea eta egoera ekonomikoaren aldetik estuasunik gabeak izatea gomendatzen zen orduan.

#### 4.1 Lehen Euskara Planak

1991 urtean Eusko Jaurlaritzak eta Elhuyar Kultur Elkartek hitzarmena sinatu zuten, enpresa pribatuetan euskararen erabilera sustatzeko lehen proiektu pilotuak martxan jartzeko helburuarekin. Elay taldea izan zen aitzindaria, industria-arloko lehen proiektu pilotua abian jarri zuena, 1992an, Elhuyarren eskutik. Garai hartakoak dira, era berean, Arlan eta Ikerlan enpresetako lehen Euskara Planak.

Udal euskaltegien eta euskaltegi pribatuen sarea enpresetako euskalduntze-alfabetatzean parte hartzen hasi zen orduan. Merkataritzari lotutako egitasmoak ere garai hartan hasi ziren EAEko udaletan, hitzarmen bidez, batez ere.

1997an Euskara Planak martxan jartzeko diru-laguntza lerroa sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, esperientzia pilotu haiei jarraipena emateko. Euskara Planen kopurua hazteaz gainera, dibertsifikatu egin zen, kokapen, tamaina eta sektore ezberdinetako enpresek heldu baitzioten erronkari, hurrengo urteetan. Horrekin lotuta, planen diseinuan eta horien ezarpenean espezializatutako aholkularitza enpresak ere ugaltu ziren.

Urte hartan, 1997an, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu zen, euskararen garapenaren alde lan egiten duten Euskal Herriko 60 gizarte erakunde biltzen dituen.

Euskararen normalizazio prozesua bultzatzeko bi ildo nagusi lantzen ditu Kontseiluak: euskalgintzako erakundeen arteko loturak bultzatzea eta gizarte eragile, indar ekonomiko zein alderdi politikoak hizkuntza normalizazio proiektuetan inplikatzea.

## 4.2 Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Beste urrats bat eman zuen Euskararen Aholku Batzordeak hurrengo urtean, 1998an, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztu zuenean. Planak lau proposamen nagusi egin zituen, eremu sozioekonomikoari dagokionez: eremuari buruzko marko orokorra taxutzea, enpresetako Euskara Planen osagai nagusiak zehaztea, Euskara Planak enpresa gehiagotara zabaltzeko beharrezko giza eta diru-baliabideak jartzea, eta arlo sozioekonomikoko eragile desberdinen atxikimendua lortzea.

2000. urtean, Kultura Sailak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin batera, 2000-2001 urtealdirako diru-laguntza agindua atera zuen, Euskara Plana egin eta garatu nahi zuten EAEko entitate pribatuetarako, egoera berriari aurre egiteko metodologia jasoz eta diru-baliabideak gehituz. Diru-laguntza deialdiak, softwareari buruzko atalean, lana euskaraz egiteko aplikazio informatikoen erosketa edo garapena nahiz egokitzapena diruz laguntzeko aukera ematen zuen.

## 4.3 LanHitz programa

2005 urtean LanHitz diru-laguntza programa sortu zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), Industria eta Lan Sailarekin, Foru-Aldundiekin eta EUEL Euskadiko Udalen elkartearekin elkarlanean. LanHitz programa indarrean dago gaur egun, Euskara Planak estandarizatzeko eta homogenizatzeko helburuarekin.

LanHitzek enpresen eskura jartzen ditu Eusko Jaurlaritzak metatutako esperientziak, tresnak eta bestelako baliabideak, enpresa bakoitzak neurrira egindako plan edo jarduera propioak landu, kudeatu eta ebaluatu ditzan. Beti ere, enpresa bakoitzak zehaztu behar ditu bere helburuak, abiadurak eta baliabideak.

Erakundeek euren helburuak errazago finkatu ahal izan ditzaten, Erreferentzia Marko Estandarra (EME) deritzan taxonomia edo laguntza-koadroa osatu du HPSk. Erakunde edo enpresa estandar baten ohiko jardun-eremuak irudikatzen ditu, hizkuntza non eta zertan erabil daitezkeen erakutsiz. Horrela, Euskara Plana egin nahi duten erakundeek argi eta garbi ikus dezakete zein helburu eta eremu landu edo hobetu dezaketen.

## HPS-Erreferentzia Marko Estandarra

### 1. ardatza

#### ZERBITZU HIZKUNTZA

Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzeko pertsona fisikoarekin edo administratuarekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean erabiltzen den hizkuntza. Kanpora begira eskaintzen den hizkuntza.

#### 1/ Erakundearen irudia

- Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak
- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak
- Ingurune digitala

#### 2/ Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

- Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua/produktua eskaintzeko orduan
- Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua/produktuak eskaintzeko orduan

### 2. ardatza

#### LAN HIZKUNTZA

Erakunde bateko langileek maila formalean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza da, hau da, erakundeko zereginak eta jarduerak egiteko ahoz eta idatziz erabiltzen dutena: pertsonen kudeaketan, sistemen kudeaketan, komunikazio horizontal eta bertikalean, lan-prestakuntzan, etab.

#### 3/ Barne komunikazioa eta lan-tresnak

- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
- Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala
- Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala- Baliabide informatikoak

#### 4/ Pertsonen kudeaketa

- Pertsonen kudeaketa
- Laneko prestakuntza

#### 5/ Kanpo harremanak

- Administrazioa
- Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.
- Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

#### 6/ Kudeaketa sistema

- Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea
- Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen/zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea
- Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

#### 4.4 Bikain ziurtagiria

Diruz lagundutako Euskara Planak zabaltzearekin batera, enpresetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko sistema bat lantzeko beharra sortu zen. Bikain ziurtagiria izan zen helburu horren emaitza. 2007an sortu zen, eta 2008an banatu ziren lehenengo ziurtagiriak. Eremu sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa da doakoa da Bikain, Eusko Jaurlaritzak ematen duena.

Lan-munduan euskara ere modu integratuan kudeatzea du helburu, kalitatea, ingurumena, gizarte-erantzukizuna, genero-berdintasuna, lan-arriskuen prebentzioa edota berrikuntza kudeatzeko sortu diren jardun-ereduen bidetik.

Kanpoko adituen ekarpen kualifikatuak jasotzeko aukera ematen du Bikainek, entitatearen indarguneak sendotzeko hobetu daitekeena antzemateko. Euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren aldeko dinamika sortzen du entitatean. Era berean, ziurtagiriaren bidez egindako lanaren eta ahaleginaren aitortza eskaintzen da.

Ziurtagiria jaso ahal izateko, entitateek kanpo-ebaluazio bat gainditu behar dute. Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotako adierazleak aztertzen dituzte ebaluatzaileek, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko. Eremu sozioekonomikoko entitate pribatuek bezala, sozietate publikoek ere jaso dezakete ziurtagiria, EAEn jarduten baldin badute; baita erakunde publikoek ere.

##### Eskatzaileak

- Entitate pribatuak
- Sozietate publikoak
- EAEko administrazio orokorra eta instituzionala
- Toki eta Foru Administrazioak
- Estatuko Administrazioa

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ebaluazioan 1.000 puntu lor daitezke gehienez, eta horien arabera, hiru aitortza-maila daude:

**OINARRIZKO MAILA** (Beltza): 200 puntu gutxienez

**TARTEKO MAILA** (Zilarrezkoa), 500 puntu gutxienez

**GOI MAILA** (Urrezkoa), 800 puntu gutxienez

ARDATZAK	Egokitutako puntu kopurua HARTZAILEAK	
	Entitate pribatuak eta sozietate publikoak	EAEko Administrazio orokorra eta instituzionala, Estatuko Administrazioa eta Toki eta Foru Administrazioa
1. Zerbitzu hizkuntza	350	200
2. Lan hizkuntza	650	800
<b>Guztira</b>	<b>1000 puntu</b>	<b>1000 puntu</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

40

EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera

#### 4.5 Bai Euskarari

Bikain ziurtagiriaren helburuak konpartitzen ditu Bai Euskarari ziurtagiriak, baina EAE beharrez, Euskal Herri osoa du eragin eremu. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sortu zuen, 2000.urtean, esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko. 2007an, Ziurtagiriaren Elkartea sustatu zuen, ziurtagiria egonkortzeko eta zabaltzeko. Elkartek kudeatzen du orduz geroztik.

Bai Euskarari komunitatearen parte den ziurtagiridunak euskara maila hobetzeko behar duen aholkularitza eta baliabideak jasotzen ditu, Bai Euskarari Elkartearen jarraipen, ebaluazio eta sustapen lanarekin. Hiru maila ditu ziurtagiriak:

**EUSKARAREN BIDEAN ziurtagiria:** Euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

**ZERBITZUA EUSKARAZ ziurtagiria:** Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

**ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ ziurtagiria:** Zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzatzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

Bai Euskarari Elkartek proiektua sendotzeko, hobetzeko eta hedatzeko pausoak eman ditu, gizartearentzat egitura erreferentea sortuz eta hauspotuz. Hala, proiektu ezberdinak garatzen ditu urtean zehar. Besteak beste, Enpresarean eta Lansarean. Lehena, euskararen normalizazioan lanean ari diren enpresak sartzeko egitasmoa da, bigarrena profesional euskaldunentzako lan-ataria.



## 4.6 Euslan

2015-2017 urteen artean Eusko Jaurlaritzak martxan jarri zuen programa pilotua izan zen. Enpresa industrialetako lan-hizkuntza gisa euskara gero eta gehiago erabiltzeko prozedurak eta praktikak diseinatu eta gauzatzea izan zuen helburu. Industria-sektoreko 12 enpresa izan ziren parte hartzaileak: Alejandro Altuna-JMA, Batz, Cikautxo, Copreci, Danobat, Eika, Elay, Goizper, Maier, Matz-Erreka, Orkli eta Ulma CYE. Horietatik 8 Gipuzkoan kokatuak, eta 4 Bizkaian. Denen artean 5.000 langiletik gora biltzen zituzten une hartan.

Konpromiso bat hartu zuten programa pilotuan parte hartu zuten enpresek: enpresa barruko ahozko eta idatzizko lan harremanei eta hizkuntza paisaiari dagozkien parametroetan euskararen erabilera % 90era iristea edo gutxienez % 20ko hobekuntza izatea 2017 urtean.



Iturria: Emun Hizkuntza Zerbitzuak

#### 4.7 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa

Euskararen Legeak eta Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Itunak–Espainian indarrean dagoenak— herri-aginteak behartzen dituzte euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan bermatzeko neurriak hartzera. Eta ildo horretatik etorri zen uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legea garatzen duena.

123/2008 Dekretuaren arabera, EAEko herritarrek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko. Modu horretan, lehen aldiz arautu ziren kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak.

Dekretuaren aplikazio-eremuari dagokionez, ondorengo entitateek bete behar dute:

- 1 Abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 38. artikuluan aipatzen diren erakunde publikoek, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko arau-bidearen arabera ematen dituztenean.
- 2 Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak ematen dituzten erakunde edo pertsona juridikoek, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren mende dauden zerbitzuak ematen dituztenek.
  - a. Euskal Autonomia Erkidegoan komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak.
  - b. Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien trenbideko garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten tren-enpresak.
  - c. Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.
  - d. Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien aire-garraioko zerbitzu erregularrak ematen dituzten enpresak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aireporturen batean bidaiarien lehorreko asistentzia-zerbitzuak ematen dituztenak.
  - e. Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak energia elektriko hornitzen dituzten banaketa-enpresak edo merkaturatze-enpresak.
  - f. Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileei saltzeko, gas naturala merkaturatzen duten enpresak.

- 3 Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden jendeari begirako, produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduek, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen baldin badute:
  - a. 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea, betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena baldin badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa baldin bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu.
  - b. Jendeari saltzeko gunearen azalera 400 metro karratutik gorakoa duten establezimenduak izatea, Bilbon, Gasteizen, Donostian edo elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta baldin badaude.
  - c. Bezeroarentzako arreta ematen duten langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea.
- 4 Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduek, betiere kolektiboak baldin badira, hau da, esparru edo eraikin beraren barruan hainbat saltoki baldin badaude eta saltoki horietako jarduerak era independentean gauzatzen baldin badira.
- 5 Euskal Autonomia Erkidegoan jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeek.
- 6 Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obren sustatzaileek.

## 4.8 Euskaragileak

2015ean sortu zen Euskaragileak proiektua, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren eskutik, eta 2015etik Bai Euskarari elkarteak kudeatzen du. Enpresa batzorde bat da, euskalduntzean aurrera pausoak eman dituzten zenbait enpresaz osatua. Enpresaren gizarte erantzukizunaren ikuspegitik, euskararen normalizazioan eragile izateko funtzioa batetzeko asmoa du batzordeak.

Euskaragileen funtzioak:

- 1 Eragile aktiboa izatea.
- 2 Eredugarri izatea.
- 3 Enpresen arteko sinergiak sustatzea.
- 4 Enpresa berriak erakartzeko bitartekari eta sustatzaile izatea.
- 5 Enpresa-Euskaragileek egindako bidea balioan jartzea, onurak erakustea eta prestigioa ematea.

Ondorengo enpresek osatu zuten batzordea, haren sorreran:



Iturria: Bai Euskarari Elkarteak

## 4.9 Foru Aldundien eta Udalen ekimenak

EAEko hiru Foru Aldundiek abiatu dituzte euren lurraldeetan esparru sozioekonomikoan euskara sustatzeko lan-ildoak:

### ARABAKO FORU ALDUNDIA

Lanabes– Araban Euskara Lanean egitasmoa martxan jarri zuen 2015ean, eta bertan elkarlanean ari dira SEA-Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Arabako Merkataritza Federazioa, Elektra Vitoria, Oreka It, Laneki eta Bai Euskarari Ziurtagirien Elkarteak. Helburu nagusia da Arabako eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea. World kafea, Lazarraga sariak, LANPRES eta LANENPRES gidak, Araban BAI kanpaina eta praktika onak dira, enpresetako pilotajeekin batera, abian dauden proiektuak.

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gobernu Kontseiluak Euskara Bizia batzordea sortu zuen 2012an, Bizkaian euskararen alde lan egiten duten elkarteak laguntzeko eta haien jarduerak koordinatzeko. Organo aholku-emailea da, ondorengo erakunde eta entitateek osatua: Bizkaiko Foru Aldundia (hiru ordezkari) eta Eudel, Alkarbide, Azkue Fundazioa eta euskararen alde lan egiten duten elkarteak, erakundeak eta norbanako kualifikatuak (ordezkari bana).

2016an sortua da Bizkeus Batzordea, Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarria, lan-munduan eta Lanbide Heziketan euskararen presentzia handitzeko. Lehentasunezko arlo estrategikoak eta eraginkorrenak zehaztu zituen: ostalaritza, merkataritza, komertzioa, osasungintza, gizarte arreta eta kultur zerbitzua. Euskara sustatzeko diru-laguntzak ere ematen ditu.

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen diru-laguntzen deialdian lerro zehatz bat du, prestakuntza-aldiak euskaraz egiteko. Ondorengo helburua du: Lanbide Heziketako Zikloetako eta Modalitate dualeko praktikak egingo dituzten ikasleak hartzen dituzten enpresei praktika horiek euskaraz egiteko aukera ematea. 2018. urtean, 72.000 euro banatu dira lerro horretan.

“Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak” lerroan, Gipuzkoako udal, mankomunitate eta tokiko garapen-agentziak diruz laguntzen dira, besteak beste, arlo sozio ekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeko egitarauak garatzeko.

“Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak” lerroan, irabazi asmorik gabeko entitate juridikoei arlo sozioekonomikora begirako lanak egiteko aukera ematen du; adibidez, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako.

## UDALAK

---

ESEP-Euskara Sustatzeko Ekintza planen baitan lantzen dute udalek esparru sozioekonomikoa, diru-laguntzen edo itzulpen zerbitzuen bidez. Euskara planak martxan jartzeko sustapen lana ere egin dute zenbait udalek. Nabarmentzekoa da, udalen eskutik, merkataritza planen bidez sektore horretan euskararen erabilera zabaltzeko hainbat udalerritan egin izan den lana.

46

EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa:  
euskararen egoera

### 4.10 Enpresen koordinazio-batzordeak eta bestelako egitasmoak

Mondragon Korporazioan, Euskara Planekin ari diren kooperatibek batzordeak dituzte. Haien zeregina da inguruan eragitea, enpresetan euskara planak sustatzea, Mondragonen euskararen arloari buruzko gaiak hizpide izatea eta, batez ere, ezagutza (autoebaluazioak, esperientziak...) eta zenbait egitasmoren antolakuntza partekatzea.

Goierriko enpresek Ingudea sortu zuten 2011n, enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko pausoak emateko. Hainbat arlo, ezaugarri eta neurritako enpresetako kideek parte hartzen dute batzordean, indar metaketa aprobetxatu, lan-ildoak definitu eta elkarrekin ekintza bateratuak egiteko. Hiru helburu nagusi dituzte: ezagutza partekatzea, eskualdean eragitea eta Goierriko gainerako enpresak bertara erakartzea.

### 4.11 Erakunde publikoen eta entitate pribatuen arteko lankidetzak-hitzarmenak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak akordioak sustatu ditu arlo sozioekonomikoko entitate publiko eta pribatuekin, euskara sustatzeko lanean euren inplikazioa eta parte-hartze zuzena ahalbidetu, bultzatu eta antolatzeko. Ondorengo entitateekin sinatu ditu lankidetzak-hitzarmenak:

**Enpresarien elkarteak:** CONFEBASK euskal enpresarien elkarte eta ADEGI, CEBEK eta SEA hiru lurraldeetako enpresarien elkarteak.

**Sindikatuak:** ELA, CCOO, LAB eta UGT.

**MEI:** Makina Erreminta Institutua.

**Erkide:** Euskadiko Kooperatiben Federazioa.

**Telefonia operadoreak eta fabrikatzaileak:** Alcatel, Eroski, Euskaltel, Nokia, Orange, Samsung, Sony Ericsson, Telefónica, Vodafone eta Yoigo.

**Merkataritza-Guneak:** Carrefour Norte, El Corte Inglés, Eroski, Fnac, Forum Sport, Inditex, Media Markt, Mercadona, Uvesco, Sabeco.

**Finantza-entitateak:** BBVA, Santander, Bankoa Crédit Agricole, Caixabank, Caja Rural de Navarra, SCC, Kutxabank, Laboral Kutxa, Popular, Sabadell Guipuzcoano.

**AENOR:** Asociación Española de Normalización (UNE).



## 5. Zer dakigu?



Euskarak eremu sozioekonomikoan bizi duen egoerara hurbiltzeko asmoz, aurreko atalean azaldutako zenbait egitasmoren inguruko datu kuantitatiboak aztertuko dira, alde batetik, horien eragina neurtze aldera: LanHitz programa, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak eta 123/2008 Dekretua.

Ondoren, informazio-iturri dokumental ezberdinak konbinatuko dira, eremu sozioekonomikoan euskararen ezagutza eta erabilera zein diren aztertzeko eta sektoreen eta kokapenaren arabera zein alde egon daitekeen estimatzeko. Kokapenari dagokionez, aipatu beharra dago azterketa honetan ez direla kontuan hartzen eskualde batetik bestera lan arazoiegatik egin daitezkeen eguneko lekualdatzeak.

Atala borobiltzeko, diagnostikoa osatzeko interesgarria izan daitekeen bestelako informazioa erantsiko da, hizkuntza-industrien, euskara-aurrekontuen, hezkuntzaren edo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren inguruan, besteak beste.

## 5.1 LanHitz programa

Enpresetan Euskara Planak martxan jartzeko diru-laguntzei dagokienez, LanHitz programa eta haren aurrekoak kontuan hartuta, 1997 urteaz geroztik 2.650 eskaera jaso ditu Eusko Jaurlaritzak, eta gehienak diruz lagundu ditu (%95,4). 31.053.261 euro bideratu ditu urte horietan guztietan, batez beste, 12.289 euro esleipen bakoitzeko.


**8. taula.** LanHitz deialdiari buruzko datu orokorrak: jasotako eta diruz lagundutako eskaerak, esleitutako laguntzak eta eskaerako esleitutako kopurua, urtearen arabera

Urtea	Jasotako eskaera kopurua Kop	Diruz lagundutakoak		Aurrekontuak guztira €	Esleitutakoa guztira €	Esleitutako kopurua batez beste €
		Kop	%			
1997	12	12	100,0	226.373	90.152	7.513
1998	22	22	100,0	999.223	90.152	4.098
1999	35	35	100,0	1.577.766	117.798	3.366
2000	47	47	100,0	2.239.513	250.670	5.333
2001	59	58	98,3	2.861.997	1.047.626	18.063
2002	68	68	100,0	5.549.642	661.113	9.722
2003	81	80	98,8	4.439.584	851.192	10.640
2004	81	81	100,0	5.149.214	961.572	11.871
2005	96	96	100,0	6.910.503	1.118.303	11.649
2006	121	120	99,2	7.743.125	1.752.002	14.600
2007	143	141	98,6	7.855.654	2.295.387	16.279
2008	176	175	99,4	9.889.074	2.675.219	15.287
2009	177	174	98,3	11.516.963	2.643.716	15.194
2010	171	162	94,7	13.339.098	2.400.000	14.815
2011	166	156	94,0	12.481.623	2.388.000	15.308
2012	168	163	97,0	14.023.002	2.285.000	14.018
2013	182	179	98,4	14.455.151	1.944.800	10.865
2014	180	162	90,0	13.496.875	1.944.800	12.005
2015	188	156	83,0	12.506.576	1.512.868	9.698
2016	171	166	97,1	12.740.508	1.563.575	9.419
2017	153	138	90,2	11.985.673	1.650.000	11.957
2018	153	136	88,9	12.503.678	1.650.000	12.132
<b>Guztira</b>	<b>2.650</b>	<b>2.527</b>	<b>95,4</b>	<b>180.106.042</b>	<b>31.053.261</b>	<b>12.289</b>

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua


LanHitz deialdiko eskaeren bilakaerari dagokionez, lurraldearen arabera ez da aldaketa nabarmenik egon. Gorabeherak izan dituen arren, Gipuzkoa buruan egon da beti, Bizkaia bigarren tokian eta Araba hirugarrenean, alde handiarekin, gainera. Sektoreari dagokionez, aldiz, hasieran industriako entitateak izan ziren nagusi, 2009ra arte. Goranzko bidea zeraman zerbitzuen sektorearen mailan geratu zen orduan. Orduraz geroztik gehiago dira LanHitz programan eskaerak aurkezten dituzten zerbitzuetako enpresak, industriakoak baino. Edonola ere, azken urteetan behera egin dute eskaerek, orokorrean.

**11. grafikoa.** LanHitz deialdira aurkeztutako entitateak, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

**12. grafikoa.** LanHitz deialdira aurkeztutako entitateak, sektorearen arabera (%)



Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Deialdietara aurkeztutako entitateen tamainari dagokionez (langile kopurua), hasieran handiak ziren gehien-gehienak, 51-250 langile artekoak eta 250etik gorakoak. Azken hamarkadan, ordea, egonkortu egin da enpresa txiki-ertainen kopurua. Gutxiengo dira, hala ere, handien aldean.

**9. taula.** LanHitz deialdira aurkeztutako entitateen langile kopurua, urtearen arabera


Urtea	11 langiletik beherakoak		11-50 langile bitartekoak		51-250 langile bitartekoak		250 langiletik gorakoak	
	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor
1997	0	0,0	0	0,0	5	41,7	7	58,3
1998	0	0,0	0	0,0	7	31,8	15	68,2
1999	0	0,0	1	2,9	13	37,1	21	60,0
2000	2	4,3	4	8,5	17	36,2	24	51,1
2001	6	10,2	5	8,5	21	35,6	27	45,8
2002	5	7,4	4	5,9	27	39,7	32	47,1
2003	4	4,9	12	14,8	31	38,3	34	42,0
2004	7	8,6	10	12,3	32	39,5	32	39,5
2005	11	11,5	17	17,7	38	39,6	30	31,3
2006	11	9,2	27	22,5	46	38,3	36	30,0
2007	15	10,6	39	27,7	52	36,9	35	24,8
2008	18	10,2	51	29,0	71	40,3	36	20,5
2009	16	9,1	54	30,9	64	36,6	41	23,4
2010	14	8,2	51	30,0	63	37,1	42	24,7
2011	13	7,8	44	26,5	63	38,0	46	27,7
2012	14	8,3	41	24,4	62	36,9	51	30,4
2013	15	8,2	47	25,8	67	36,8	53	29,1
2014	16	8,9	50	27,8	67	37,2	47	26,1
2015	23	12,2	53	28,2	71	37,8	41	21,8
2016	21	12,3	46	26,9	69	40,4	35	20,5
2017	16	10,5	45	29,4	58	37,9	34	22,2
2018	16	10,5	36	23,5	57	37,3	44	28,8
Guztira	243	9,2	637	24,1	1.001	37,9	763	28,9

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Euskara Planak martxan jartzeko diru-laguntzak jaso dituzten entitateetan sakontze aldera, 2008-2018 epeko deialdietan esleipendunak izan direnak kontuan hartu dira jarraian. Izan ere, hainbat entitatek behin baino gehiagotan jaso ditu diru-laguntzak. Urtero ere bai, batzuek. Guztira 466 entitate aurkeztu dira LanHitz deialdira, 2008-2018 epean, eta 432ri esleitu zaie diru-laguntza (%92,7). Kontuan hartu beharra dago onartutako esleipenak direla, ez likidatutakoak.

432 entitate horiek eskualdeen arabera banatuta, esleipenen erdia gainditzen dute Bilbo eta Donostia hiriburuen eskualdeek. Hurrengoa Debagoiena da (%16,2), gainerako eskualdeekiko alde handiarekin. Mondragon Korporazioko kooperatiba handien pisua nabarmendu beharra dago, alde horretatik.


**13. grafikoa.** 2008-2018 artean, LanHitz deialdian diru-laguntza jasotako entitateak, eskualdearen arabera (%)



Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Eskualde bakoitzeko enpresek diru-laguntza zenbat urtez jaso duten aztertuta dator segidan. Azpimarratzekoa da Debagoiena eskualdeko 37 enpresa direla 7-11 urtetan diru-laguntza jaso dutenak. Multzo horretan daude Donostialdeko 20 enpresa eta Bilbo Handiko beste 16. Bi hiriburu horien eskualdeetan, oso handia da behin edo bi aldiz diru-laguntza jaso dutenen pisua; nabarmentzekoa da, era berean, Gasteizko eskualdean (Arabako Lautada), Durangaldean eta Debabarrenan.


**14. grafikoa.** Entitateek zenbat urtez jaso duten diru-laguntza, eskualdearen arabera



Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Eskualde bakoitzeko entitateek jasotako esleipenaren zenbatekoa kontuan hartuta, agerian gelditzen da Debagoiena eskualdeko enpresen pisua, urrun uzten baitituzte Bilbo Handiko eta Donostialdeko entitateak, jasotako kopuruei dagokienez. Arabako Lautadaren, Durangaldearen eta Gipuzkoako beste zenbait eskualderen garrantzia ere azpimarratzekoa da (Debabarrena, Goierri, Tolosaldea).

**15. grafikoa.** LanHitz deialdiko diru-laguntza esleipenaren zenbatekoa, eskualdearen arabera



Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Entitateen sektorea, langile kopurua eta lurralde historikoa gurutzatuta datoz jarraian. Alde horretatik, azpimarratzekoa da, alde batetik, Bizkaiko eta Gipuzkoako zerbitzuetako enpresa ertain-txikien pisua, eta bestetik, Gipuzkoako enpresa industrial ertain-handiena. Esleitutako diru-laguntzen kopuruek ere multzo horien garrantzia berresten dute.

**10. taula.** 2008-2018 urteen artean, LanHitz deialdian diru-laguntza esleitutako entitateak, sektore, langile kopuru eta lurralde historikoaren arabera

Sektorea		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Industria	<=10 langile	0	2	3	5	1,2
	11-50 langile	1	7	31	39	9,0
	51-150 langile	2	13	44	59	13,7
	>250 langile	3	7	22	32	7,4
	Guztira	6	29	100	135	31,3
	%	4,4	21,5	74,1		100,0
Zerbitzuak	<=10 langile	7	27	23	57	13,2
	11-50 langile	10	47	44	101	23,4
	51-150 langile	4	47	45	96	22,2
	>250 langile	3	25	15	43	10,0
	Guztira	24	146	127	297	68,8
	%	8,1	49,2	42,8		100,0
Guztira	<=10 langile	7	29	26	62	14,4
	11-50 langile	11	54	75	140	32,4
	51-150 langile	6	60	89	155	35,9
	>250 langile	6	32	37	75	17,4
	Guztira	30	175	227	432	100,0
	%	6,9	40,5	52,5		100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua



**11. taula.** 2008-2018 urteen artean, LanHitz dealdian esleitutako diru-laguntzak (€), sektore, langile kopuru eta lurralde historikoaren arabera

Sektorea		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Industria	<=10 langile		4.776	227.249	232.025	1,0
	11-50 langile	9.731	203.735	1.821.000	2.034.466	9,0
	51-150 langile	224.044	446.150	4.331.995	5.002.188	22,1
	>250 langile	297.491	877.271	4.094.744	5.269.507	23,3
	Guztira	531.266	1.531.932	10.474.988	12.538.187	55,3
	%	4,2	12,2	83,5		100,0
Zerbitzuak	<=10 langile	72.737	247.265	319.333	639.335	2,8
	11-50 langile	130.729	941.842	1.261.904	2.334.475	10,3
	51-150 langile	188.748	1.265.649	2.222.139	3.676.535	16,2
	>250 langile	77.900	1.613.267	1.778.278	3.469.445	15,3
	Guztira	470.113	4.068.024	5.581.654	10.119.791	44,7
	%	4,6	40,2	55,2		100,0
Guztira	<=10 langile	72.737	252.041	546.583	871.361	3,8
	11-50 langile	140.460	1.145.578	3.082.903	4.368.941	19,3
	51-150 langile	412.791	1.711.799	6.554.134	8.678.724	38,3
	>250 langile	375.391	2.490.539	5.873.022	8.738.952	38,6
	Guztira	1.001.379	5.599.956	16.056.642	22.657.977	100,0
	%	4,4	24,7	70,9		100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

## 5.2 Bikain ziurtagiria

Guztira 368 entitatek dute Bikain ziurtagiria, gaur egun. Gipuzkoan kokatuta dago horien ia %60 (220 entitate), Bizkaian herena eta Araban gainerakoak (24 entitate). Gipuzkoan gehienak Goi mailakoak dira, gainera, eta tartekoak Bizkaian eta Araban. Horrekin lotuta dago Bikain ziurtagiria lortu duten entitateen langileen kopurua. Izan ere, langileen %54,3 Gipuzkoako entitateei dagokie.

**12. taula.** Bikain ziurtagiria duten entitateak, maila eta lurralde historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Oinarrizkoa	8	31	30	69
%	33,3	25,0	13,6	18,8
Tartekoa	10	49	93	152
%	41,7	39,5	42,3	41,3
Goi mailakoa	6	44	97	147
%	25,0	35,5	44,1	39,9
Guztira	24	124	220	368
%	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

**13. taula.** Bikain ziurtagiria lortutako entitateen langile kopurua, lurralde historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Langile kopuru estimatua	4.903	30.404	41.923	77.230
%	6,3	39,4	54,3	100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

Sektorearen arabera aztertzeko, bi multzo baino ez dira egin: industria eta zerbitzuak. Zerbitzuen sektorekoa da, hain zuzen, Bikain ziurtagiria duten entitateen ia %86. Industriakoa entitateen %14,1 baino ez da. Esanguratsua da, hala ere, industriako gehienak Gipuzkoan kokatuta daudela.

**14. taula.** Bikain ziurtagiria duten entitateak, sektorea eta lurralde historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Industria	1	12	39	52
%	4,2	9,7	17,7	14,1
Zerbitzuak	23	112	181	316
%	95,8	90,3	82,3	85,9
Guztira	24	124	220	368
%	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua


Euskal hitzunen ehunekoari dagokionez, enpresa gehienek %80tik gorakoa dute langile euskaldunen portzentajea (Kontuan hartuta %32,6 zehaztu gabea dela).

**15. taula.** Bikain ziurtagiria duten entitateak, euskal hitzun portzentajearen eta lurralde historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<= % 30	2	12	6	20
%	8,3	9,7	2,7	5,4
% 31 - % 50	5	21	20	46
%	20,8	16,9	9,1	12,5
% 51 - % 80	3	15	48	66
%	12,5	12,1	21,8	17,9
> % 80	7	37	72	116
%	29,2	29,8	32,7	31,5
Zehaztu gabe	7	39	74	120
%	29,2	31,5	33,6	32,6
<b>Guztira</b>	<b>24</b>	<b>124</b>	<b>220</b>	<b>368</b>
%	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HPS, 2019. Siadecok landua

**16. grafikoa.** Bikain ziurtagiria duten entitateen bilakaera, mailaren eta urtearen arabera




Iturria: HPS. Siadecok landua, 2019

### 5.3 Bai Euskarari ziurtagiria

EAEko hiru lurraldeak kontuan hartuta, 900 dira Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduak. Horien erdia baino gehiago Gipuzkoan kokatutakoa da, laurdena pasatxo Bizkaikoa eta Arabakoa gainerakoa (179 entitate). Araban gehien-gehienek oinarritzko maila dute; Bizkaian ere gehiengo dira, baina gertu daude goi mailakoa dutenak; Gipuzkoan, tarteko maila da nagusi (Zerbitzua euskaraz).

**17. grafikoa.** Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduak, lurraldearen arabera



Iturria: Bai Euskarari Elkartea, 2018

Jarduera-adarraren arabera aztertuta, agerian gelditzen da Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimendu gehien-gehienak zerbitzuetakoak direla, eta %8 baino ez, industriakoak. Kontuan hartu behar da establezimenduak kontaktzen dituela Bai Euskarari Elkarreak estatistiketan, ez enpresa edo entitateak.

**16. taula.** Bai Euskarari ziurtagiria duten entitateak, jarduera-adarraren arabera

	Zerbitzua eta lana euskaraz	Zerbitzua euskaraz	Euskararen bidean	Guztira	%
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta ehiza	3	5	4	12	1,3
Industria, energia, enpresak	6	21	44	71	7,9
Garraioa, autoak eta autoentzako zerbitzuak	0	3	16	19	2,1
Merkataritza, ostalaritza, gainazal handiak	9	68	91	168	18,7
Hezkuntza, formazioa	29	59	58	146	16,3
Hedabideak	16	1	3	20	2,2
Kirola	12	15	24	51	5,7
Kultura	22	16	7	45	5,0
Euskara	84	3	0	87	9,7
Osasungintza	1	7	30	38	4,2
Bestelako zerbitzuak	24	120	61	205	22,8
Administrazio publikoa, alderdi politikoak, sindikatuak	5	6	4	15	1,7
Gizarte mugimenduak	8	8	7	23	2,6
<b>Guztira</b>	<b>219</b>	<b>332</b>	<b>349</b>	<b>900</b>	<b>100</b>

Iturria: Bai Euskarari Elkartea, 2018

## 5.4 123/2008 Dekretua

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-maila neurtzeko ikerketa egin zuen Ikeik, HPSk eskatuta, 2014 urtean. Azterlan horren ondorio nagusia da, sektore pribatuan, dekretua bete behar luketen enpresen %22k baino ez duela egiten. Finantza-erakundeena da betetze-maila altuena (%50). Sailkapenean hurrengo postuan dago garraio-sektorea %25eko indizearekin. Hirugarren tokian daude komunikazio-enpresak (% 16ko betetze mailarekin). Aztertutako gainerako sektoreetan, araua betetzen duten establezimenduen portzentajea txikia da: % 7 energian, % 6 merkataritzan, eta % 2 etxebizitzan.

Zonalde geografikoari dagokionez, enpresa edo establezimendua kokatuta dagoen udalerriko elebitasun maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da betetze-maila. Hori dela eta, betetze-indize handienak Gipuzkoan daude alde batetik, eta elebidunak % 80 baino gehiago diren hizkuntza-zonaldeetan, bestetik.

Ikerketak sektore pribatua eta publikoa bereizi zituen, eta honakoak dira sektore pribatuaren betetze-mailarekin lotuta azpimarratutako alderdiak:

- Ahozko komunikazioa: komunikazio sektoreko establezimenduak eta higiezin agentziak dira betetze-maila baxuena azaltzen dutenak.
- Idatzizko komunikazioaren kasuan, higiezin agentziak dira aspektu gehienak landu behar dituztenak.
- Higiezin sektorea da orokorrean betetze-maila baxuena duen sektorea. Baina inkestako kontraste lanetan behin baino gehiagotan aipatu dute agentziek euskarari ematen dioten garrantzia bezeroek ematen diotenarekin bat datorrela.
- Finantza erakundeen kasuan, aipagarria da euskarari dagokionez aurrezki kutxen eta bankuen artean nabarmentzen den aldea. Horrela, aurrezki kutxek aztertu diren aspektu guztietan betetze-maila altua duten bitartean, bankuek alderdi asko dituzte hobetzeko.
- Orokorrean, Dekretuaren betetze maila, %22an kokatzen du Ikeiren azterketak, baina aldeak adierazgarriak dira jarduera, lurralde edota gune soziolinguistikoaren arabera:
  - Betetze-maila orokorra txikia da (%22,0).
  - Emaitzetan hizkuntza zonaldeak eragina du. Eragina bikoitza da: langileen eta herritar edo bezeroen hizkuntza gaitasuna, eta honekin bai euskararen eskaria nola eskari horri euskaraz erantzuteko gaitasuna baldintzatzen du.
  - Adierazle sintetikoek hizkuntza politikaren garapenean erritmo desberdinak erakusten dituzte sektorearen eta hizkuntza zonaldearen arabera.

- Betetze-mailarik altuena finantza-erakundeetan ematen da.
- Betetze-mailarik baxuena dute aldiz: etxebizitzaren salmentaz eta alokairuaz arduratzen diren enpresek –higiezin agentziek- (idatzizko komunikazio alderdietan), eta merkataritza establezimenduek (ahozko harremanetan).
- Araudiak ezarritako eskakizunen betetze-maila altuagoa da euskararekiko proaktiboagoak diren enpresa / establezimenduetan.

**17. taula.** Dekretuaren betetze-maila jardueraren arabera: adierazle sintetikoak (%)

Jarduera	%
Posta / komunikazioa	16,7
Garraioa	25,5
Energia	7,1
Merkataritza	6,3
Finantza-erakundeak	50,0
Etxebizitza	2,4
<b>Guztira</b>	<b>22,0</b>

Iturria: Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren ikerketa. IKEI, 2014

**18. taula.** Dekretuaren betetze-maila lurralde historikoaren arabera: adierazle sintetikoak (%)

Lurralde historikoa	%
Gipuzkoa	21,8
Bizkaia	13,5
Araba	7,4
<b>Guztira</b>	<b>22,0</b>

Iturria: Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren ikerketa. IKEI, 2014

**19. taula.** Dekretuaren betetze-maila gunee linguistikoaren arabera: adierazle sintetikoak (%)

Gune linguistikoa	%
Elebidunak <%20	7,4
%20-%33	8,1
%33-%49,9	18,9
%50-%80	26,5
>%80	71,4
<b>Guztira</b>	<b>22,0</b>

Iturria: Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren ikerketa. IKEI, 2014

**20. taula.** Betetzen dutenen eta betetzen ez dutenen ezaugarriak

Betetzen dutenak	Betetzen ez dutenak
Kreditu erakundeak dira nagusi (%54)	Merkataritza establezimenduak dira nagusi (%46)
Jendaurreko langileen ehuneko altuak du euskara-gaitasuna (%64)	Jendaurreko langileen ehuneko txikiak du euskara-gaitasuna (%23)
Euskarari garrantzi handia ematen diote gehienek (%79)	Euskarari garrantzi handia ematen dioten enpresa gutxi (%35)
Euskara erabiltzeak abantailak ditu ia denentzat (%93)	Euskara erabiltzeak abantaila hirutik birentzat (%66)
Euskara erabiltzeko neurriak hartu dituzte bitik kasu batean (%52)	Oso gutxitan hartu dituzte euskara erabiltzeko neurriak (%16)
Euskara plana dago gehienetan (%61)	Gutxi dute Euskara Plana (%16)

Iturria: Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 dekretuaren betetze-mailaren ikerketa. IKEI, 2014

Ikerketak azaldutako ondorio orokorren artean azpimarratzekoak:

- ▶ Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ez dira egun betetzen, eta horiek bete eta betearaztea gainditu gabeko erronka da oraindik.
- ▶ Herritarren euskara gaitasuna oso desberdina da EAEko zonalde batzuetatik besteetara; eta alde hori ere islatu egiten da establezimenduen betetze-mailan; hizkuntza errealitatea oso heterogeneoa da esparru geografiko batetik bestera.
- ▶ Hori kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta ematen dieten langileen euskara gaitasunean bistaratzen da, baina baita ere eskaeraren beraren euskara gaitasunean, eta euskaraz artatua izateko egiten duen eskarian. Sektore bereko establezimendu eta enpresek euskaraz artatzeko eta euskara erabiltzeko “presio” maila desberdinak pertzibitzen ditu kokatuta dagoen udalerrri edo zonalde linguistikoaren arabera.
- ▶ Elkarrizketatutako enpresa eta establezimendu guztien kezka nagusia kontsumitzaile eta erabiltzaileen beharretara ahalik eta azkarren moldatzea da. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak eskatzen dutena da erabakigarriena enpresa eta establezimenduen zuzendaritzak zein zerbitzu eskainiko duen erabakitzeke. Hots, enpresa eta establezimenduei euskarazko zerbitzua exijituz gero (bertan langileekin dugun harremanetan, idatzizko harremanetan zein bezeroaren arreta zerbitzuarekin mantentzen dugun harremanetan) enpresa eta establezimenduek zerbitzua euskaraz emateko euren esku dauden baliabide eta erreminta guztiak erabiliko dituzte, bezeroen behar eta nahiak asetzea delako beraien lehentasuna.



- ▶ Sektore edo jarduera-mota batetik bestera, hala ere, aldeak daude, eta finantza erakundeetako langileek dute gainerako sektoreetakoek baino euskara gaitasun altuagoa; baxuena, aldiz, komunikazio sektoreko enpresetakoek dute; horien artean euskaraz egiteko gai diren langileen ehunekoa baxua da.
- ▶ Oro har, bezeroari arreta euskaraz emateko gai direla dioten enpresa edo establezimenduen ehunekoa oso altua da sektore guztietan, maiz horretarako arazoak dituztela onartu arren.
- ▶ Lehiakideen aurrean, euskara “ezaugarri bereizlea” izan daitekeela pertzibitzen da; izan ere, lehia komertzial handiagoa jasan dezaketen enpresen artean, euskararekiko “sentsibilizazioa” ere handiagoa baita.
- ▶ 2007ko egoerarekin konparatuta, egoerak hobera egin du nabarmen telefono bidezko arretan eta ahozko harreman presentzialean. Webguneetan aldiz, ez da apenas aldaketarik antzematen. Sektoreka, finantza erakundeen bilakaera positiboa aipagarria da.
- ▶ Ondorioz, geografia eta sektore mailako errealitate desberdin horrek, oso erritmo diferenteak eragiten ditu hizkuntza politikaren garapenen, eta zehazki 2008ko Dekretuko eskakizunen betetze-mailan.
- ▶ Sektore publikoan, erronka nagusia osasun-sektorean egon daiteke.

Ikeik 2014ko Ikerketa hartan egindako zenbait proposamen gogoraraztea interesgarria izan daiteke:

- Aurrera begirako estrategia: egokiena sektorearen araberrako, gune soziolinguistikoaren araberrako eta enpresa edo establezimendu motaren araberrako politikak planteatzea izango litzateke. Guztientzat politika berdina planteatzea ez da eraginkorra, egoera eta errealitate desberdinak dituzten enpresa eta establezimenduak daudelako eta horrek politika desberdinak eskatzen dituelako.
- Beraz, helburua gizartea bere osotasunean kontzientziatzea izan beharko litzateke eta euskara aktiboki sustatu herritarron sare profesionaletan eta pertsonaletan. Hau da, enpresa eta establezimenduetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak betetzen direla ziurtatzeko modurik eraginkorrena gizarteak, eta ez Administrazioak, eskatzea da. Hau da, enpresetan euskararen erabilera sustatzeko politikak eta ekintzak inplantatzearekin batera, kontsumitzaileen artean zerbitzua euskaraz jasotzeko beharra sortu behar da, hauek baitute enpresek eskaintzen dutena mugatzeko boterea.

## 5.5 Datu soziolinguistikoak

### Gune soziolinguistikoaren kontzeptua

Azterlanari ikuspegi geografikoa emateko, eremu sozioekonomikoko enpresak gune soziolinguistikoaren arabera kokatuko dira. Inkesta soziolinguistikoan erabiltzen den kontzeptua da gune soziolinguistikoa, udalerriak biztanleen euskararen ezagutzaren arabera kokatzeko:

#### 21. taula. Gune soziolinguistikoak

1 gune soziolinguistikoa	Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna
2 gune soziolinguistikoa	Biztanleriaren %20-%50 bitartean da euskalduna
3 gune soziolinguistikoa	Biztanleriaren %50-%80 bitartean da euskalduna
4 gune soziolinguistikoa	Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Diagnostiko honetan, Eustat-ek erabiltzen duen 20 eskualdeko zerrenda ere gune soziolinguistikoaren arabera kokatu da.

#### 22. taula. Gune soziolinguistikoetako eskualdeak


Gune soziolinguistikoa	Eskualdea
1 gune soziolinguistikoa	Arabako Ibarrak
2 gune soziolinguistikoa	Arabako Lautada
	Arabako Mendialdea
	Behe Bidasoa
	Bilbo Handia
	Donostialdea
	Enkarterriak
	Arabar Errioxa
	Gorbeia inguruak
3 gune soziolinguistikoa	Arratia Nerbioi
	Debarrena
	Debagoiena
	Durungaldea
	Gernika-Bermeo
	Goierri
	Plentzia-Mungia
Tolosaldea	
Urola Kosta	
4 gune soziolinguistikoa	Markina-Ondarroa

Iturria: Siadeco, 2019

Eskualdeen gune soziolinguistikoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da EAEko biztanleria euskaldunaren %60 bigarren gune soziolinguistikokoan bizi dela (Euskaldunak biztanleriaren %20-%50 artean diren eskualdeetan). Euskaldunen %37,1 bizi da hirugarren gune soziolinguistikoko eskualdeetan, eta %2,3 soilik laugarrenekoetan (Kontuan hartu behar da laugarren gune soziolinguistikoko eskualde bakarria dagoela eta biztanleriaren %1,2 bizi dela bertan).

Bigarren gune soziolinguistikokoan erdaldunen %85,7 ere bizi da, kontuan hartu behar baita ia biztanleriaren hiru laurden bizi dela eskualde horietan (%74). 9 eskualde dira, erdia baino gutxiago, baina horietan bizi da EAEko biztanleriaren gehiengo handi bat.

**18. grafikoa.** Euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak, eskualdekako gune soziolinguistikoen arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

**23. taula.** Biztanleria, eskualdea kokatuta dagoen gune soziolinguistikoaren arabera, euskara mailari jarraikiz (% bertikalak)

Guneak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak		Guztira		Eskualde kopurua
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	
1 gune soziolinguistikoa	1.151	0,13	1.169	0,30	3.506	0,42	5.826	0,27	1
2 gune soziolinguistikoa	541.010	60,38	314.525	80,26	716.174	85,76	1.571.709	74,04	9
3 gune soziolinguistikoa	333.225	37,19	74.182	18,93	112.508	13,47	519.915	24,49	9
4 gune soziolinguistikoa	20.556	2,29	2.021	0,52	2.868	0,34	25.445	1,20	1
<b>Guztira</b>	<b>895.942</b>	<b>100,00</b>	<b>391.897</b>	<b>100,00</b>	<b>835.056</b>	<b>100,00</b>	<b>2.122.895</b>	<b>100,00</b>	<b>20</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

Biztanleria udalerraren gune soziolinguistikoaren arabera banatuz gero ere, bigarren gune soziolinguistikoan bizi da biztanleriaren zatirik handiena (ia %72) eta erdaldunen %85 bizi da udalerrri horietan, eskualdearen araberrako banaketan bezala. Euskaldunei dagokienez, aldiz, gutxiago dira bigarren gune soziolinguistikoan bizi direnak, udalerrrien arabera banatuta (%56). Handiagoa da, ordea, laugarren gune soziolinguistikoan bizi direnen ehunekoak (%6,7).

**24. taula.** Biztanleria, udalerrria kokatuta dagoen gune soziolinguistikoaren arabera, euskara mailari jarraikiz (% bertikalak)

Guneak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak		Guztira		Udalerrri kopurua
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	
1 gune soziolinguistikoa	1.338	0,15	1.262	0,32	4.941	0,59	7.541	0,36	11
2 gune soziolinguistikoa	501.653	55,99	311.279	79,43	713.787	85,48	1.526.719	71,92	85
3 gune soziolinguistikoa	333.209	37,19	74.536	19,02	109.921	13,16	517.666	24,38	88
4 gune soziolinguistikoa	59.742	6,67	4.820	1,23	6.407	0,77	70.969	3,34	67
<b>Guztira</b>	<b>895.942</b>	<b>100,00</b>	<b>391.897</b>	<b>100,00</b>	<b>835.056</b>	<b>100,00</b>	<b>2.122.895</b>	<b>100,00</b>	<b>251</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

Eskualdearen gune soziolinguistikoaren araberrako banaketari adinaren aldagaia gehituz gero, nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoetan ez dagoela oso alde handirik, lehen gunean izan ezik. Hortik gorako adin-tarteetan dago diferentziarik handiena. Beraz, gaur egun lan-munduan dauden artean, euskararen ezagutzari dagokionez, eskualde batetik bestera alde handia egon daitekeen arren, datozen urteetan, euskaldunen ehunekoak gora egingo du gune soziolinguistiko guztietan.

**25. taula.** EAEko biztanleria (>=2 urte) eskualdeko gune soziolinguistikoaren arabera, adinari eta euskara mailari jarraikiz (% hor)

		Euskaldunak		la euskaldunak		Erdaldunak		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1 gune sozio-linguistikoa	2-14 urte	492	66,2	196	26,4	55	7,4	743	100,0
	15-24 urte	217	50,1	97	22,4	119	27,5	433	100,0
	25-34 urte	122	23,7	133	25,9	259	50,4	514	100,0
	35-49 urte	192	12,5	434	28,2	913	59,3	1.539	100,0
	50-64 urte	102	7,2	239	16,8	1.079	76,0	1.420	100,0
	65 edo +	26	2,2	70	5,9	1.081	91,8	1.177	100,0
	Guztira	1.151	19,8	1.169	20,1	3.506	60,2	5.826	100,0
2 gune sozio-linguistikoa	2-14 urte	157.310	82,2	29.518	15,4	4.548	2,4	191.376	100,0
	15-24 urte	97.521	72,6	18.103	13,5	18.765	14,0	134.389	100,0
	25-34 urte	78.168	44,3	38.901	22,1	59.298	33,6	176.367	100,0
	35-49 urte	105.350	27,1	116.540	30,0	166.300	42,8	388.190	100,0
	50-64 urte	60.270	17,6	71.883	21,0	210.139	61,4	342.292	100,0
	65 edo +	42.391	12,5	39.580	11,7	257.124	75,8	339.095	100,0
	Guztira	541.010	34,4	314.525	20,0	716.174	45,6	1.571.709	100,0
3 gune sozio-linguistikoa	2-14 urte	66.482	91,1	5.857	8,0	672	0,9	73.011	100,0
	15-24 urte	39.295	85,8	2.694	5,9	3.835	8,4	45.824	100,0
	25-34 urte	39.090	68,1	6.447	11,2	11.901	20,7	57.438	100,0
	35-49 urte	73.412	56,8	26.190	20,3	29.685	23,0	129.287	100,0
	50-64 urte	57.039	51,7	21.427	19,4	31.780	28,8	110.246	100,0
	65 edo +	57.907	55,6	11.567	11,1	34.635	33,3	104.109	100,0
	Guztira	333.225	64,1	74.182	14,3	112.508	21,6	519.915	100,0
4 gune sozio-linguistikoa	2-14 urte	2.877	92,4	215	6,9	21	0,7	3.113	100,0
	15-24 urte	1.842	86,6	98	4,6	187	8,8	2.127	100,0
	25-34 urte	1.965	72,6	182	6,7	558	20,6	2.705	100,0
	35-49 urte	4.503	75,4	541	9,1	925	15,5	5.969	100,0
	50-64 urte	4.569	78,9	572	9,9	651	11,2	5.792	100,0
	65 edo +	4.800	83,6	413	7,2	526	9,2	5.739	100,0
	Guztira	20.556	80,8	2.021	7,9	2.868	11,3	25.445	100,0
Guztira	2-14 urte	227.161	84,7	35.786	13,3	5.296	2,0	268.243	100,0
	15-24 urte	138.875	76,0	20.992	11,5	22.906	12,5	182.773	100,0
	25-34 urte	119.345	50,4	45.663	19,3	72.016	30,4	237.024	100,0
	35-49 urte	183.457	34,9	143.705	27,4	197.823	37,7	524.985	100,0
	50-64 urte	121.980	26,5	94.121	20,5	243.649	53,0	459.750	100,0
	65 edo +	105.124	23,4	51.630	11,5	293.366	65,2	450.120	100,0
	Guztira	895.942	42,2	391.897	18,5	835.056	39,3	2.122.895	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

Lurraldearen arabera aztertuta, orokorrean, Gipuzkoa da euskaldunen ehuneko altuena duena (%57,4), Bizkaiaren (%36,6) eta Arabaren aurretik (%28,5). Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko aldea, alabaina, 25 urtetik gorakoen artean nabarmentzen da.

**26. taula.** EAEko biztanleria (>=2 urte) lurraldearen arabera, adinari eta euskara mailari jarraikiz (% hor)

		Euskaldunak		la euskaldunak		Erdaldunak		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Araba	2-14 urte	30.470	73,1	9.810	23,5	1.378	3,3	41.658	100,0
	15-24 urte	17.904	65,9	4.145	15,2	5.137	18,9	27.186	100,0
	25-34 urte	13.472	36,4	8.869	24,0	14.659	39,6	37.000	100,0
	35-49 urte	17.005	21,2	22.658	28,2	40.725	50,7	80.388	100,0
	50-64 urte	7.842	11,8	11.427	17,2	47.052	70,9	66.321	100,0
	65 edo +	3.130	5,0	5.021	8,1	54.040	86,9	62.191	100,0
	Guztira	89.823	28,5	61.930	19,7	162.991	51,8	314.744	100,0
Bizkaia	2-14 urte	112.467	83,9	18.847	14,1	2.731	2,0	134.045	100,0
	15-24 urte	68.195	73,5	12.767	13,8	11.882	12,8	92.844	100,0
	25-34 urte	56.819	45,7	27.806	22,4	39.639	31,9	124.264	100,0
	35-49 urte	80.358	29,2	82.778	30,1	111.911	40,7	275.047	100,0
	50-64 urte	50.365	20,4	50.615	20,6	145.304	59,0	246.284	100,0
	65 edo +	39.655	16,4	26.785	11,1	175.031	72,5	241.471	100,0
	Guztira	407.859	36,6	219.598	19,7	486.498	43,7	1.113.955	100,0
Gipuzkoa	2-14 urte	84.224	91,0	7.129	7,7	1.187	1,3	92.540	100,0
	15-24 urte	52.776	84,1	4.080	6,5	5.887	9,4	62.743	100,0
	25-34 urte	49.054	64,7	8.988	11,9	17.718	23,4	75.760	100,0
	35-49 urte	86.094	50,8	38.269	22,6	45.187	26,7	169.550	100,0
	50-64 urte	63.773	43,3	32.079	21,8	51.293	34,9	147.145	100,0
	65 edo +	62.339	42,6	19.824	13,5	64.295	43,9	146.458	100,0
	Guztira	398.260	57,4	110.369	15,9	185.567	26,7	694.196	100,0
EAE	2-14 urte	227.161	84,7	35.786	13,3	5.296	2,0	268.243	100,0
	15-24 urte	138.875	76,0	20.992	11,5	22.906	12,5	182.773	100,0
	25-34 urte	119.345	50,4	45.663	19,3	72.016	30,4	237.024	100,0
	35-49 urte	183.457	34,9	143.705	27,4	197.823	37,7	524.985	100,0
	50-64 urte	121.980	26,5	94.121	20,5	243.649	53,0	459.750	100,0
	65 edo +	105.124	23,4	51.630	11,5	293.366	65,2	450.120	100,0
	Guztira	895.942	42,2	391.897	18,5	835.056	39,3	2.122.895	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

Biztanleriaren sexuari erreparatuta, alde nabarmenena Araban dago, bertan, euskaldunen ehunekoak altuagoa baita emakumeen artean. Ia euskaldunen ehunekoari dagokionez, horien pisu erlatiboa altuagoa da gizonezkoen artean, hiru lurraldeetan.

**27. taula.** EAEko biztanleria (>=2 urte), lurralde historikoaren, sexuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2016 (% hor)

		Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Araba	Gizonezkoak	42.782	27,6	31.706	20,4	80.594	52,0	155.082	100,0
	Emakumezkoak	47.041	29,5	30.224	18,9	82.397	51,6	159.662	100,0
	Guztira	89.823	28,5	61.930	19,7	162.991	51,8	314.744	100,0
Bizkaia	Gizonezkoak	195.754	36,6	110.081	20,6	229.683	42,9	535.518	100,0
	Emakumezkoak	212.105	36,7	109.517	18,9	256.815	44,4	578.437	100,0
	Guztira	407.859	36,6	219.598	19,7	486.498	43,7	1.113.955	100,0
Gipuzkoa	Gizonezkoak	194.530	57,4	55.727	16,4	88.749	26,2	339.006	100,0
	Emakumezkoak	203.730	57,4	54.642	15,4	96.818	27,3	355.190	100,0
	Guztira	398.260	57,4	110.369	15,9	185.567	26,7	694.196	100,0
EAE	Gizonezkoak	433.066	42,1	197.514	19,2	399.026	38,8	1.029.606	100,0
	Emakumezkoak	462.876	42,3	194.383	17,8	436.030	39,9	1.093.289	100,0
	Guztira	895.942	42,2	391.897	18,5	835.056	39,3	2.122.895	100,0


Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika, 2016

## 5.6 Establezimenduak eta enplegua, gune soziolinguistikoaren arabera

Diagnostikoko hirugarren atalean aurkeztutako EAeko 173.849 establezimenduak eskualdeen araberako gune soziolinguistikoetan kokatuta, alde nabarmena antzematen da. Establezimenduen hiru laurden baino gehiago lehen eta bigarren gune soziolinguistikoetan kokatua dago (lehen gunekoa eskualde bakarra da —Arabako Ibarrek—), eta laurdena baino gutxiago, beraz, (%23,8) hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan (laugarren gune soziolinguistikoa eskualde bakarra da —Markina-Ondarroa—).

JESN-Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko A21 sailkapeneko jarduera-adarrei erreparatuta, merkataritza da nagusi, gune guztietan (establezimendu kopuruari dagokionez, beti ere). 1. eta 2. gune soziolinguistikoetan jarduera profesionalek, zientifikoek eta teknikoek ere pisu erlatibo altua dute; eraikuntzak eta industriak, aldiz, 3. eta 4. guneetan.

**19. grafikoa.** Establezimendu gehien dituzten jarduera adarrak, gune soziolinguistikoaren arabera



Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2918. Siadecok landua



28. taula. EAEko establezimenduak eta jarduera (A21), eskualdearen gune soziolinguistikoaren arabera

	1-2		3-4		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza.	3.441	2,60	2.521	6,09	5.962	3,43
B Ateratze-industriak	21	0,02	25	0,06	46	0,03
C Manufaktura-industria	6.863	5,18	4.097	9,89	10.960	6,30
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	121	0,09	45	0,11	166	0,10
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	236	0,18	118	0,28	354	0,20
F Eraikuntza	15.424	11,65	4.994	12,06	20.418	11,74
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	30.390	22,95	9.348	22,57	39.738	22,86
H Garraio eta bilketa	8.615	6,51	2.386	5,76	11.001	6,33
I Ostalaritza	10.410	7,86	3.413	8,24	13.823	7,95
J Informazioa eta komunikazioak	2.842	2,15	570	1,38	3.412	1,96
K Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	3.651	2,76	1.009	2,44	4.660	2,68
L Onibar-jarduerak	2.547	1,92	521	1,26	3.068	1,76
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	18.616	14,06	3.827	9,24	22.443	12,91
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	4.810	3,63	1.193	2,88	6.003	3,45
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantz	733	0,55	442	1,07	1.175	0,68
P Hezkuntza	4.749	3,59	1.743	4,21	6.492	3,73
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	8.607	6,50	2.058	4,97	10.665	6,13
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.028	2,29	922	2,23	3.950	2,27
S Bestelako zerbitzuak	7.331	5,54	2.182	5,27	9.513	5,47
Jarduera guztira	132.435	100,00	41.414	100,00	173.849	100,00
% hor		76,18		23,82		100,00

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018. Siadecok landua

Establezimendu horietan lanean ari diren enplegatuen banaketari dagokionez ere, gehien-gehienak 2. gune soziolinguistikoan ari dira lanean. Enplegatuen %24k lan egiten du 3. edo 4. gune soziolinguistikoetan kokatutako establezimenduetan.

**29. taula.** EAEko enpleguak establezimenduetan eskualdearen gune soziolinguistikoaren arabera

	Kop	%
1. eta 2. gune soziolinguistikoak	671.856	75,96
3. eta 4. gune soziolinguistikoak	212.602	24,04
<b>Guztira</b>	<b>884.458</b>	<b>100,00</b>

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018. Siadecok landua

Eskualdekako gune soziolinguistiko bakoitzeko enpleguak zein sektoretan ari diren ere aztertu daiteke, Lan Merkatuaren Erroldatik abiatuta. Horrela, agerian gelditzen da 1-2 gune soziolinguistikoetan zerbitzuek enpleguan duten pisu erlatiboa handiagoa dela (%73,7), 3-4 guneetan baino (%59,8). Industriaren pisua, aldiz, handiagoa da 3-4 guneetan (%34), 1-2 guneetan baino (%20). Kontuan hartu beharra dago, dena den, enplegatuen hiru laurden 1-2 gune soziolinguistikoetan ari dela lanean.


**30. taula.** EAEko 16tik 64 urte bitarteko biztanleria landuna ari den sektore ekonomikoa, LME eskualdearen gune soziolinguistikoaren arabera

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1. eta 2. gune soziolinguistikoak	6.116	0,9	139.542	20,0	38.371	5,5	515.345	73,7	699.375	100,0
3. eta 4. gune soziolinguistikoak	3.273	1,5	71.885	34,0	9.869	4,7	126.563	59,8	211.589	100,0
<b>Guztira</b>	<b>9.389</b>	<b>1,0</b>	<b>211.427</b>	<b>23,2</b>	<b>48.240</b>	<b>5,3</b>	<b>641.909</b>	<b>70,5</b>	<b>910.965</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

JEGID-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik abiatuta, A21 sailkapenaren arabera jarduera-adar bakoitzean zenbat langile ari diren zehaztuta dator jarraian, establezimendua kokatuta dagoen udalerraren gune soziolinguistikoaren arabera. 3-4 gune soziolinguistikoan industriak duen pisua berretsi egiten du, 1-2 guneetan merkataritzak, ostalaritzak eta bestelako zerbitzuek dutena bezala.

**20. grafikoa.** Lanpostuak jarduera-adar bakoitzean, gune soziolinguistikoaren arabera



75

EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa:  
euskararen egoera

Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018. Siadecok landua

**31. taula.** Enplegua jarduera sektorearen arabera (A21), kokatuta dagoen udalerraren gune soziolinguistikoari jarraikiz

	1. eta 2. gune soziolinguistikoak		3. eta 4. gune soziolinguistikoak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	5.677	0,9	6.766	2,8	12.443	1,4
B Erauzteko industriak	151	0,0	196	0,1	347	0,0
C Manufaktura industria	86.719	13,5	84.687	35,1	171.406	19,4
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	1.726	0,3	192	0,1	1.918	0,2
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	3.883	0,6	2.454	1,0	6.337	0,7
F Eraikuntza	36.800	5,7	12.326	5,1	49.126	5,6
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	95.836	14,9	32.688	13,5	128.524	14,5
H Garraioa eta biltegiatzea	31.594	4,9	10.457	4,3	42.051	4,8
I Ostalaritza	43.343	6,7	16.314	6,8	59.657	6,7
J Informazioa eta komunikazioak	18.992	3,0	1.874	0,8	20.887	2,4
K Finantza jarduerak eta aseguru-eta	13.880	2,2	2.894	1,2	16.774	1,9
L Jarduerak higiezinekin	4.190	0,7	779	0,3	4.948	0,6
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	51.351	8,0	12.822	5,3	64.173	7,3
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	54.705	8,5	7.940	3,3	62.645	7,1
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantz	36.506	5,7	8.047	3,3	44.553	5,0
P Hezkuntza	55.003	8,6	18.470	7,7	73.473	8,3
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	71.881	11,2	13.924	5,8	85.805	9,7
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	12.747	2,0	3.464	1,4	16.211	1,8
S Beste zerbitzu batzuk	18.125	2,8	5.055	2,1	23.180	2,6
<b>Guztira</b>	<b>643.109</b>	<b>100,0</b>	<b>241.349</b>	<b>100,0</b>	<b>884.458</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Eustat-Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), 2018. Siadecok landua

## 5.7 Euskararen ezagutza eta erabilera, jarduera-adarraren arabera

EAEko Lan Merkatuaren Erroldak euskararen ezagutzaren eta erabilerearen inguruko erantzunak bildu ditu azken inkestan. Horien arabera, agerian gelditzen da bereziki hezkuntzan eta herri administrazioetan euskaldunen pisu erlatiboa handia dela. Dena den, nabarmentzekoa da, enpleguan daukaten pisuagatik, industrian eta merkataritza-ostalaritzan ari diren euskaldunen kopurua, nahiz eta azken horietan, batez ere, ez euskaldunak gehiago izan. Azpimarratzekoa da industrian langileen %42 dela euskalduna, merkataritzan eta ostalaritzan baino nabarmen gehiago.

77

**21. grafikoa.** Euskaldun gehien duten jarduera adarrak



EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

32. taula. 15 eta 74 urte arteko biztanleria okupatua. Euskararen ezagutza jarduera-adarraren arabera

	Euskaldunak		la euskaldunak		Ez euskaldunak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza.	4.498	46,9	1.183	12,3	3.918	40,8	9.599	100
B Ateratze-industriak	518	39,2	62	4,7	741	56,1	1.321	100
C Manufaktura-industria	83.776	42,1	25.442	12,8	89.631	45,1	198.849	100
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	1.197	27,0	308	7,0	2.925	66,0	4.430	100
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	2.805	38,1	1.252	17,0	3.305	44,9	7.362	100
F Eraikuntza	13.845	28,5	3.905	8,0	30.843	63,5	48.593	100
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	40.929	34,0	18.016	14,9	61.591	51,1	120.536	100
H Garraio eta bilketa	11.066	27,2	6.306	15,5	23.295	57,3	40.667	100
I Ostalaritza	21.829	35,0	6.523	10,5	33.977	54,5	62.329	100
J Informazioa eta komunikazioak	9.899	43,2	3.851	16,8	9.150	40,0	22.900	100
K Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	7.145	42,3	1.934	11,4	7.830	46,3	16.909	100
L Onibar-jarduerak	1.411	38,1	296	8,0	2.000	53,9	3.707	100
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	22.232	43,6	6.825	13,4	21.906	43,0	50.963	100
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	11.659	24,9	4.786	10,2	30.424	64,9	46.869	100
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantz	24.639	60,7	5.896	14,5	10.079	24,8	40.614	100
P Hezkuntza	65.440	82,6	3.055	3,9	10.740	13,6	79.235	100
Q Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	45.187	47,9	12.305	13,1	36.761	39,0	94.253	100
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	9.415	58,0	2.784	17,2	4.030	24,8	16.229	100
S Bestelako zerbitzuak	9.951	19,3	3.749	7,3	37.960	73,5	51.660	100
Jarduera guztira	387.441	42,2	108.480	11,8	421.108	45,9	917.029	100


Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

Erabilerari dagokionez, eguneroko bizimodutik lantokira jauzi handirik ba ote dagoen aztertuta dator segidan. Jarduera-adar gehienetan, erabilerak behera egiten du lantokian, nahiz eta alde handirik ez egon. Industrian, adibidez, langileen %16,6 da beti edo gehienetan euskaraz egiten duena eguneroko bizimoduan. Lanean, aldiz, %14ra jaisten da ehunekoa. Merkataritzan, %10,6tik %9,5era jaisten da beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoa, eguneroko bizimodutik lantokira.

Ostalaritzan, aldiz, lanean beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoa altuagoa da (%12,4). Ostalaritzarekin lotuta, kontuan hartu beharra dago atzerrian jaiotakoen presentzia gero eta handiagoa dela sektoreko langileen artean.

Eguneroko bizimodutik lantokirako igoyerarik handiena, dena den, hezkuntzan gertatzen da: hezkuntzako langileen %37,1ek egiten du beti edo gehienetan euskaraz egunerokoan, eta %51,3k lantokian.

**22. grafikoa.** Euskararen erabilera egunerokoan eta lanean (%)



EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

**33. taula.** 15-74 urteko biztanleria landunak, zenbateraino egiten duen euskaraz bere eguneroko bizimoduak, eta zenbateraino lanean, jarduera-adarraren arabera

	Egunerokoan				Lanean				Kop
	Beti edo gehienetan euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	Guztira	Beti edo gehienetan euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	Guztira	
A Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza.	24,8	15,0	59,7	100,0	25,1	17,0	58,4	100,0	9.599
B Ateratze-industriak	6,3	19,0	74,4	100,0	3,4	23,0	73,4	100,0	1.321
C Manufaktura-industria	16,6	14,0	69,79	100,0	14,0	15,0	71,0	100,0	198.847
D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	10,0	6,3	83,7	100,0	8,8	8,6	82,6	100,0	4.430
E Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	15,8	14,3	69,9	100,0	11,9	18,2	69,9	100,0	7.363
F Eraikuntza	11,5	9,5	79,0	100,0	9,2	11,5	79,3	100,0	48.593
G Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	10,6	10,3	79,0	100,0	9,5	11,9	78,5	100,0	120.536
H Garraio eta bilketa	9,8	9,9	80,3	100,0	7,1	11,3	81,6	100,0	40.667
I Ostalaritza	11,9	12,3	75,8	100,0	12,4	14,6	72,9	100,0	62.329
J Informazioa eta komunikazioak	14,9	16,1	69,0	100,0	13,4	15,3	71,2	100,0	22.900
K Finantza jarduerak eta aseguruak	16,4	11,4	72,2	100,0	13,1	12,8	74,1	100,0	16.910
L Onibar-jarduerak	10,4	9,7	79,9	100,0	6,2	8,8	85,0	100,0	3.707
M Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	16,4	10,8	72,8	100,0	10,9	13,3	75,8	100,0	50.964
N Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	5,9	8,1	86,0	100,0	4,9	9,0	86,1	100,0	46.869
O Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	20,9	20,2	58,9	100,0	20,8	23,7	55,4	100,0	40.614
P Hezkuntza	37,1	27,6	35,3	100,0	51,3	22,4	26,3	100,0	79.235
Q Osasun eta gizarte zerbitzuak	13,3	13,3	73,4	100,0	11,9	17,6	70,5	100,0	94.254
R Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	20,8	14,2	65,1	100,0	19,7	24,8	55,5	100,0	16.230
S Bestelako zerbitzuak	10,1	12,6	77,3	100,0	12,4	11,9	75,6	100,0	51.659
Jarduera guztira	15,7	13,6	70,7	100,0	15,3	15,2	69,5	100,0	917.029

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua




## 5.8 Euskararen erabilera, gune soziolinguistikoaren arabera

Jarduera ekonomikoak gune soziolinguistikoaren araberako eskualdeetan kokatu ditugula kontuan hartuta, gune bakoitzean eta eremu sozioekonomikoarekin lotutako egoeretan euskararen erabilera zein den aztertuta dator jarraian, Inkesta Soziolinguistikoko datuetan oinarrituta. Beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoa adierazten du grafikoak, lankideekin, alde batetik; bestetik, zerbitzuen kontsumitzaile gisa, merkataritza establezimenduetan eta banketxeetan.

Ezagutza-mailarekin lotuta, igoera progresiboa da egoera guztietan, lehen gune soziolinguistikoko erabilera baxuenetik laugarreneko altuenera. Gune batetik bestera alde nabarmenak daude, hala ere, egoeraren arabera. Bigarren gunean eta lehenengoan, batez ere, euskara gehiago erabiltzen da lankideekin kontsumitzaile gisa baino. Bi kasuetan banketxeetako erabilerak dendetakoak gaitzen du.

Hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan euskara gehiago erabiltzen da kontsumitzaile modura, lankideekin baino. Hirugarrenean dendetako erabilera banketxeetakoaren mailara heltzen da, eta laugarrenean, gaitu egiten du.

**23. grafikoa.** Beti edo gehienetan euskaraz, eremu sozioekonomikoarekin lotutako egoeretan (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

Erabileran sakontzeko, aztertu daiteke euskalduna den biztanleriak zein egoeratan erabiltzen duen euskara gehien. Eremu sozioekonomikoarekin lotutako egoerei (lankideekin eta kontsumitzaile gisa, dendetan eta banketxeetan), eremu pribatua erantsi zaie ondorengo grafikoan (lagunekin, etxean).


Erdiko zutabeak lanpostuan, lankideekin egiten den erabilera adierazten du; ezker aldera, kontsumitzaile gisa, merkataritza establezimenduetan eta banketxeetan egiten den erabilera; eskuin aldera, eremu pribatuan, lagunekin eta etxean egiten den erabilera.

Aurreko grafikoan ikusitakoarekin lotuta, lehen eta bigarren guneko soziolinguistikoetan, elebidunen ehuneko txikiena dutenetan, hain zuzen, euskaldunek lankideekin egiten dute euskara gehien. Lehen guneko soziolinguistikoan, gainera, gehiago egiten dute eremu pribatuan, kontsumitzaile gisa baino. Bigarrenetan, aldiz, zerbitzuetan egiten den erabilerak etxekoa gaingitzen du.

Hirugarren eta laugarren guneko soziolinguistikoetan, lankideekin euskara gutxiago erabiltzen da gainerako egoeretan baino. Kontsumitzaile gisa gehiago erabiltzen da bietan, baina eremu pribatuko erabilerak gora egiten du laugarrenean.

Kontsumitzaile modura egiten den erabilerari dagokionez, lehen bi gunetako euskara gehiago erabiltzen da banketxeetan dendetan baino, hirugarrenean ia berdindu egiten dira, eta laugarrenean, dendetako erabilerak banketxeetakoa gaingitzen du. Kontuan hartu beharra dago Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 dekretuak finantza-erakundeei eta saltoki handiei eragiten diela, ez ordea, denda txikiei. Gainera, Eusko Jaurlaritzak 2014an egin zuen dekretuaren betetze-mailaren ikerketaren arabera, finantza-erakundeak direla dekretuaren betetze-maila altuena dutenak (%61, ahozko harreman presentzialetan eta telefonikoetan).

24. grafikoa. Euskaldunak - Beti edo gehienetan euskaraz, egoera ezberdinetan (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

## 5.9 Euskararen erabilera, lurraldearen arabera

EAE osoa kontuan hartuta, euskara gehiago erabiltzen da lankideekin kontsumitzaile modura baino. Banketxeetako erabilerak dendetako gainditzen du, gainera. Joera berdina da Araban eta Bizkaian, bigarrenen euskara gehiago erabiltzen delarik, egoera guztietan. Dena den, Gipuzkoa da, alde handiarekin, erabilera maila altuena duena. Bertan euskara gehiago erabiltzen da kontsumitzaile gisa, lankideekin baino.

25. **grafikoa.** Orokorrean, beti edo gehienetan euskaraz (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

## 5.10 Euskara sustatzearen inguruko jarrera, gune soziolinguistikoaren arabera

Eremu sozioekonomikoan euskara sustatzearen alde edo kontra egon daitezkeen jarrerak estimatzeko, Inkesta Soziolinguistikoko bi baieztapenen inguruko iritziak aztertu dira, gune soziolinguistikoaren arabera: “Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino” eta “Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke”. Lehen gune soziolinguistikoa da euskara sustatzearekiko kritikoena (ingelesa ikatea hobestearren alde eta administrazioan sartzeko euskara eskatzearen kontra), eta bigarren gunea dator ondoren.


Hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoak nahiko pareko daude ingelesaren edo euskararen ikasketa hobesteari dagokionez. Administrazioan sartzeko euskara eskatzeari dagokionez, kritikoagoa da hirugarren gune soziolinguistikoa. Horren kontrakoa biztanleriaren %5 baino ez da laugarren gune soziolinguistikoan.

**26. grafikoa.** Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

**27. grafikoa.** Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

Adierazpen horien inguruan gune soziolinguistiko bakoitzeko euskaldunek duten iritzia bilduta dator jarraian. Ikusten da erabileran eragiteaz gainera, iritzi eta ikuspuntuetan ere inpaktua duela inguruneak. Izan ere, euskaldunen iritzia ez da berdina, gune soziolinguistiko guztietan. Lehenengoan eta bigarrenean euskara sustatzearekiko kritiko direnen ehunekoa altuagoa da, hirugarrenean eta laugarrenean baino. Aurreko grafikoetan ikusitakoan sakonduz, ingelesaren ikasketa hobestearen aldekoak gehiago dira laugarren gunean hirugarrenean baino.

**34. taula.** Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino: GUZTIZ EDO NAHIKO KONFORME (%)

	1. gunea	2. gunea	3. gunea	4. gunea
Orokorrean	29,9	25,8	13,8	14,5
Euskaldunak	17,4	15,5	7,9	10,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

**35. taula.** Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke: GUZTIZ EDO NAHIKO KONTRA (%)


	1. gunea	2. gunea	3. gunea	4. gunea
Orokorrean	23,3	16,7	11,2	5,1
Euskaldunak	8,4	6,1	3,7	1,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

## 5.11 Euskara sustatzearen inguruko jarrera, lurraldearen arabera


Orokorrean, EAEko biztanleriaren laurdena inguru dago ingelesaren ikasketa hobestearren alde. Lurraldez-lurralde, Araba da aldekoen ehuneko altuena duena, eta baxuena duena, Gipuzkoa. Administrazioan sartzeko euskara jakiteko eskakizunari dagokion grafikoak antzeko irudia eskaintzen du. Kontrako ehuneko handiena Arabak dauka, eta Gipuzkoak baxuena.

**28. grafikoa.** Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

**29. grafikoa.** Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

Gune soziolinguistikoaren arabera azterketan bezala, lurraldearen arabera ere agerian gelditzen da euskaldun direnen iritzietan ere eragina duela inguruak.

**36. taula.** Hobe da jendeak ingeleza ikastea euskara ikastea baino: GUZTIZ EDO NAHIKO KONFORME (%)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Orokorrean	25,1	31,6	26,1	20,5
Euskaldunak	12,8	16,2	14,6	10,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

**37. taula.** Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke: GUZTIZ EDO NAHIKO KONTRA (%)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Orokorrean	18,6	25,6	20,2	12,9
Euskaldunak	5,2	7,9	6,5	3,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016

## 5.12 Hizkuntzaren industria

EAEko jarduera ekonomikoen artean, badago jarduera-adar bat hizkuntza bera duena jardueraren xede. Euskara landu, irakatsi, erabili edo zabaltzera bideratutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta entitateak dira: euskararen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntza-aholkularitza, euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena eta hizkuntza teknologien arloko jarduera-sektoreak.

2.500 lanpostu inguru dituzte enpresa eta entitate horiek guztira, Siadecok Eusko Jaurlaritzarentzat egindako "Euskararen balio eta eragin ekonomikoa" ikerlanaren (2015) arabera. Hortaz, EAEko ekonomiak sortzen duen enpleguaren %6,3 euskarari lotua dago. Sektorre ekonomiko gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokio euskarari.



### 5.13 Esparru publikoa

Lan-munduaren argazki oso eta orokorra lortze aldera, herri administrazioei eta hezkuntza eta osasun publikoei buruzko datuak ere aztertu dira diagnostiko honetan. Hala ere, kontuan hartu behar da ez direla Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plan Estrategikoaren helburu, horietan euskararen erabilera zabaltzeko berariazko plangintzak martxan daudelako.

Arreta zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gain, lana ere euskaraz egiteko neurriak hartu ditu administrazioak EAEn. Sail eta erakundeen artean alde nabarmenak daude, baina oro har, euskara oso presente dago administrazioan. Bost urte irauten duten plangintzaldien bidez bultzatzen da euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. Hizkuntza eskakizunez gainera, bestelako esparruak ere (hizkuntza irizpideak, euskara bultzatzeko neurriak etab.) arautzen dira plan horien bidez.

EAEko administrazioa euskalduntzeko VI.plangintzaldia dago indarrean, gaur egun: 323 erakunderi eta 35 mila langileri baino gehiagori eragiten die. Gogoratu behar da, halaber, hizkuntza plangintza berezia duten arloak daudela: Justizia, Ertzaintza eta Osasuna (Osakidetza).


### 5.14 Euskara aurrekontuak

EAEko herri administrazioek euskara sustatzeko zein aurrekontu bideratu zuten aztertzen du Eusko Jaurlaritzak bi urtez behin. Siadeco Ikerketa Elkarteak egin du azken estatistika, 2016an. Eusko Jaurlaritza (haren mendeko sail eta erakunde autonomoak barne), hiru Foru Aldundiak, hiru hiriburu eta udalak, eta 5.000 biztanlelik gorako udalerririk guztietako udalak (68 udal) kontuan hartuta, 147.839.060 euro bideratu ziren, guztira.

Aurrekontu horien %2,3 (3,4 milioi), arlo sozioekonomikora bideratu zen: Euskara planak enpresetara zabaltzeko programak eta diru-laguntzak; merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan eragiteko egitasmoak; enpresa eta establezimenduetako hizkuntza paisaia euskalduntzeko diru-laguntzak; enpresa eta establezimenduetako langileen euskara gaitasuna hobetzeko ikastaro bereziak edo langileentzako diru-laguntzak.

3,4 milioi euro horietatik, 2,2 milioi Eusko Jaurlaritzak bideratu zituen, 388.100 Foru Aldundiek, 205.400 hiriburu eta udalek eta 662.000 gainerako udalek. Ondorengo grafikoak agerian uzten du arlo sozioekonomikoa non geratzen den, partida handienak jasotzen dituzten irakaskuntzaren eta euskalduntze-alfabetatzearen aldean, esaterako.

**30. grafikoa.** Jarduera eremuen araberako euskara aurrekontuak 2016, erakunde motari jarraiki (mila €)



Iturria: Siadeco, 2017

Urte bakoitzean eremu sozioekonomikoa euskalduntzera biztanleko bideratutakoaren ratioak alderatuta, Eusko Jaurlaritza da balio altuena duena, eta Foru Aldundiek baxuena. 2008ko datuarekin alderatuta, jaitsiera izan dute erakundeek, baina 2014tik 2016ra, goranzko bidea hartu dute berriro.

**38. taula** Eremu sozioekonomikoa euskalduntzera biztanleko bideratutako aurrekontuaren bilakaera

	2008	2010	2012	2014	2016
Eusko Jaurlaritza	1,35	1,06	1,05	0,94	0,99
Foru Aldundiak	0,41	0,28	0,24	0,11	0,18
Hiriburuak	0,34	0,33	0,29	0,3	0,27
Udalak	0,93	0,76	0,65	0,56	0,56

Iturria: Siadeco, 2017

Eusko Jaurlaritza da 2016an arlo sozioekonomikora diru gehien bideratu zuen erakundea. Gehiena, diru-laguntzen bidez, hiru deialdi nagusitan: Lanhitz, Euslan eta merkatal gune handietan euskara sustatzeko deialdia. Egonkortutako programa da Lanhitz, enpresetan euskara planak martxan jartzea helburu duena. Baina galera nabarmena jasan du azken urteetan bideratutako aurrekontuari dagokionez (%17,8koa, 2014-2016 epean). Euslan enpresa traktoreekin abian jarritako programa pilotua izan zen, eta 295.000 euro bideratu zituen Eusko Jaurlaritzak 2016an. Merkatal gune handietan euskara sustatzera, aldiz, 56.493 euro.

**39. taula** Eusko Jaurlaritzak arlo sozioekonomikora bideratutako diru-laguntzen bilakaera (2012-2016)

	2012 diru-laguntzak		2014 diru-laguntzak		2016 diru-laguntzak		2012-2014 Bilakaera (%)	2014-2016 Bilakaera (%)
	€	%	€	%	€	%		
LANHITZ deialdia	2.207.194	4,2	1.918.756	3,9	1.576.837	3,4	-13,07	-17,8
EUSLAN deialdia	-		-		294.950	0,6	-	-
Merkatal gune handietan euskara sustatzeko deialdia	-		-		56.493	0,1	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.207.194</b>	<b>4,2</b>	<b>1.918.756</b>	<b>3,9</b>	<b>1.928.280</b>	<b>4,1</b>	<b>-13,07</b>	<b>0,5</b>

Iturria: Siadeco, 2017

Foru Aldundien eta hiriburuen artean alde nabarmena dago, arlo sozioekonomikora bideratutako diru-laguntzei dagokienez. Bizkaiko Foru Aldundia da diru gehien bideratu duena, baina erakundearen euskara-aurrekontu osoarekiko, Arabakoak ehuneko handiagoa bideratu du arlo sozioekonomikora (Araba da, orokorrean, euskara-aurrekontuetan hazkunde handiena izan duena). Arabako hiriburua, Gasteiz, hain zuzen, hiriburuen artean

arloan sozioekonomikoa euskalduntzera diru gehien bideratu duena da. Nabarmentzekoa da Bilbok ez duela horretarako aurrekonturik eduki.

**40. taula.** Foru Aldundiak arlo sozioekonomikora bideratutako diru-laguntzak (2016)

Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia		Guztira	
€	%	€	%	€	%	€	%
50.000	4,7	225.000	4,2	112.000	2,7	387.000	3,7
	12,9		58,1		28,9		100

Iturria: Siadeco, 2017

**41. taula.** Hiriburuek arlo sozioekonomikora bideratutako diru-laguntzak (2016)

Gasteiz		Bilbo		Donostia		Guztira	
€	%	€	%	€	%	€	%
12.833	1,7	-	-	4.047	0,7	16.880	0,8
	76		-		24		100

Iturria: Siadeco, 2017

Udalei dagokienez, nabarmentzekoa da Gipuzkoako udalek egiten dutela ekarpenik handiena, arlo sozioekonomikora, bai bideratutako diru kopuruari, baita euskara-aurrekontu osoarekiko pisuari begiratuta ere. Udalerrien errealitate soziolinguistikoaren arabera banatuta, agerikoa da eremu sozioekonomikoa euskalduntzera bideratutako aurrekontuaren ehunekoaren hazkundera, udalerrri erdaldunenetatik euskaldunenetara.

**42. taula.** Udalek arlo sozioekonomikora bideratutako diru-laguntzak (2016)

Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia		Guztira	
€	%	€	%	€	%	€	%
1.204	0,4	38.761	0,5	133.684	1,6	173.648	1
	0,7		22,3		77		100

Iturria: Siadeco, 2017

Euskaldunak <%25		Euskaldunak %25-%49 artean		Euskaldunak %50-%69 artean		Euskaldunak ≥%70		GUZTIRA	
€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
11.973	0,3	28.066	0,5	96.081	1,8	37.527	2	173.648	1

Iturria: Siadeco, 2017

## 5.15 Hezkuntza

Euskararen ezagutzak azken hamarkadetan izan duen bilakaera estu lotuta dago D ereduak irakaskuntzan izan duen zabalpenarekin. Gaur egun, erregimen orokorreko hezkuntza ez unibertsitarioan matrikulatutako ikasleen %64,5 D ereduan ari da EAEn. Hiru lurraldeetako errealitatea alderatuz gero, Gipuzkoan %80ra heltzen da ia, %60tik eta %50etik gertu dabil Bizkaian eta Araban, hurrenez hurren.

**43. taula.** EAeko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak lurralde historikoaren eta hizkuntza ereduaren arabera, zentroaren titulartasunari jarraikiz (2017-2018)


		Publikoa		Pribatua		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%
Araba	A eredua	8.247	22,3	5.885	23,1	14.132	22,6
	B eredua	4.654	12,6	13.237	52,0	17.891	28,6
	D eredua	24.134	65,2	6.348	24,9	30.482	48,8
	Guztira	37.035	100,0	25.470	100,0	62.505	100,0
Bizkaia	A eredua	17.015	17,6	19.369	19,9	36.384	18,8
	B eredua	4.696	4,9	35.644	36,6	40.340	20,8
	D eredua	74.866	77,5	40.011	41,1	114.877	59,3
	X eredua	0	0,0	2.283	2,3	2.283	1,2
	Guztira	96.577	100,0	97.307	100,0	193.884	100,0
Gipuzkoa	A eredua	7.666	11,0	7.134	11,4	14.800	11,2
	B eredua	2.596	3,7	9.410	15,1	12.006	9,1
	D eredua	59.547	85,3	45.935	73,5	105.482	79,7
	Guztira	69.809	100,0	62.479	100,0	132.288	100,0
EAE	A eredua	32.928	16,2	32.388	17,5	65.316	16,8
	B eredua	11.946	5,9	58.291	31,5	70.237	18,1
	D eredua	158.547	77,9	92.294	49,8	250.841	64,5
	X eredua	0	0,0	2.283	1,2	2.283	0,6
	Guztira	203.421	100,0	185.256	100,0	388.677	100,0

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika, 2018. Siadecok landua

Irakaskuntza-mailei dagokienez, baxuenetan du D ereduak pisu erlatibo altuena: %79,4 Haur Hezkuntzan eta %73,8 Lehen Hezkuntzan. DBHn eta Batxilergoan baxuagoa da D ereduan matrikulatutakoen ehunekoa (%67 eta %62,6, hurrenez hurren). Baina azpimarratzeko modukoa da Lanbide Heziketan hamarretik bi baino ez direla matrikulatzen

D ereduan. Helduen Hezkuntza Iraunkorrean, matrikulazio guztiak A eredukoak dira. Hortaz, lan-merkatuarekin lotura estuena duten mailetan du euskarak presentzia gutxi.

**31. grafikoa.** D ereduan matrikulatutakoen ehunekoak, mailaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika, 2018. Siadecok landua


**44. taula.** EAEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak irakaskuntza mailaren eta hizkuntza ereduaren arabera, zentroaren titulartasunari jarraikiz (2017-2018)

		Publikoa		Pribatua		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%
Haur Hezkuntza	A eredua	423	0,9	2.227	5,2	2.650	3,0
	B eredua	1.589	3,4	13.606	32,0	15.195	17,1
	D eredua	44.541	95,7	26.211	61,6	70.752	79,4
	X eredua	0	0,0	494	1,2	494	0,6
	Guztira	46.553	100,0	42.538	100,0	89.091	100,0
Lehen Hezkuntza	A eredua	1.210	1,8	4.226	6,7	5.436	4,1
	B eredua	4.449	6,6	23.401	37,0	27.850	21,3
	D eredua	62.188	91,7	34.530	54,6	96.718	73,8
	X eredua	0	0,0	1.039	1,6	1.039	0,8
	Guztira	67.847	100,0	63.196	100,0	131.043	100,0
DBH	A eredua	1.848	4,8	4.922	11,0	6.770	8,1
	B eredua	2.576	6,7	17.673	39,3	20.249	24,2
	D eredua	34.247	88,6	21.782	48,5	56.029	67,0
	X eredua	0	0,0	540	1,2	540	0,6
	Guztira	38.671	100,0	44.917	100,0	83.588	100,0
HHI (Helduen Hezkuntza Iraunkorra)	A eredua	13.070	100,0	289	100,0	13.359	100,0
	B eredua	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	D eredua	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	X eredua	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	Guztira	13.070	100,0	289	100,0	13.359	100,0
Batxilergoa	A eredua	3.061	20,8	6.741	43,0	9.802	32,2
	B eredua	215	1,5	1.136	7,3	1.351	4,4
	D eredua	11.458	77,8	7.577	48,4	19.035	62,6
	X eredua	0	0,0	210	1,3	210	0,7
	Guztira	14.734	100,0	15.664	100,0	30.398	100,0
LH	A eredua	13.316	59,1	13.983	75,0	27.299	66,3
	B eredua	3.117	13,8	2.475	13,3	5.592	13,6
	D eredua	6.113	27,1	2.194	11,8	8.307	20,2
	X eredua	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	Guztira	22.546	100,0	18.652	100,0	41.198	100,0
Araubide orokorreko irakaskuntzak	A eredua	32.928	16,2	32.388	17,5	65.316	16,8
	B eredua	11.946	5,9	58.291	31,5	70.237	18,1
	D eredua	158.547	77,9	92.294	49,8	250.841	64,5
	X eredua	0	0,0	2.283	1,2	2.283	0,6
	Guztira	203.421	100,0	185.256	100,0	388.677	100,0

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika, 2018. Siadecok landua

Ikasleen matrikulazioak azertzeaz gainera, irakasleen hizkuntza-eskakizunei erreparatzeak beste ikuspuntu bat eman dezake. Agerian gelditzen da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan euskarazko hezkuntza emateko gaitasuna ziurtatua dagoela, hiru lurraldeetan. Bigarren Hezkuntzan 2. eskakizuna dutenen ehunekoa jaisten da Bizkaian, baina ia %80koa da hala ere. Lanbide Heziketa da gabezia handiena duena, Araban eta batez ere, Bizkaian (%56,3k bigarren eskakizuna). Hala ere, Lanbide Heziketan D eredukoak matrikulen %20 baino ez direla kontuan hartuta, badirudi ehuneko hori handitzeko gaitasuna dagoela Lanbide Heziketan.

**32. grafikoa.** EAEko erregimen orokorreko irakaskuntzetako irakasleak lurralde historiko eta irakaskuntza-mailaren arabera, hizkuntza-eskakizunari jarraikiz (%)



Iturria: Eustat 2016. Siadecok landua



**45. taula** EAEko erregimen orokorreko irakaskuntzetako irakasleak lurralde historiko eta irakaskuntza mailaren arabera, hizkuntza-eskakizunari jarraikiz (2015-2016)

Lurralde historikoa	Ikasketa maila	Kopuruak				% horizontalak			
		0 hizkuntza eskakizuna	1 hizkuntza eskakizuna	2 hizkuntza eskakizuna	Guztira	0 hizkuntza eskakizuna	1 hizkuntza eskakizuna	2 hizkuntza eskakizuna	Guztira
Araba	Guztira	496	216	5.072	5.784	8,6	3,7	87,7	100,0
	HH_LH	123	79	2.817	3.019	4,1	2,6	93,3	100,0
	BigarrenH	323	107	2.001	2.431	13,3	4,4	82,3	100,0
	LH	154	42	456	652	23,6	6,4	69,9	100,0
	Hezkuntza berezia	16	13	120	149	10,7	8,7	80,5	100,0
	Helduen Hezkuntza	22	10	63	95	23,2	10,5	66,3	100,0
Gipuzkoa	Guztira	674	326	12.187	13.187	5,1	2,5	92,4	100,0
	HH_LH	175	97	6.315	6.587	2,7	1,5	95,9	100,0
	BigarrenH	430	183	5.226	5.839	7,4	3,1	89,5	100,0
	LH	207	83	1.261	1.551	13,3	5,4	81,3	100,0
	Hezkuntza berezia	22	9	97	128	17,2	7,0	75,8	100,0
	Helduen Hezkuntza	9	17	181	207	4,3	8,2	87,4	100,0
Bizkaia	Guztira	1.965	792	15.206	17.963	10,9	4,4	84,7	100,0
	HH_LH	455	284	8.479	9.218	4,9	3,1	92,0	100,0
	BigarrenH	1.240	408	6.048	7.696	16,1	5,3	78,6	100,0
	LH	599	179	1.003	1.781	33,6	10,1	56,3	100,0
	Hezkuntza berezia	66	20	169	255	25,9	7,8	66,3	100,0
	Helduen Hezkuntza	98	40	236	374	26,2	10,7	63,1	100,0
EAE	Guztira	3.135	1.334	32.465	36.934	8,5	3,6	87,9	100,0
	HH_LH	753	460	17.611	18.824	4,0	2,4	93,6	100,0
	BigarrenH	1.993	698	13.275	15.966	12,5	4,4	83,1	100,0
	LH	960	304	2.720	3.984	24,1	7,6	68,3	100,0
	Hezkuntza berezia	104	42	386	532	19,5	7,9	72,6	100,0
	Helduen Hezkuntza	129	67	480	676	19,1	9,9	71,0	100,0

Iturria: Eustat; Siadecok landua, 2019

**46. taula** EAEko erregimen orokorreko irakaskuntzetako irakasleak lurralde historiko eta ikastetxearen titularitatearen arabera, hizkuntza-eskakizunari jarraikiz (2015-2016)

Lurralde historikoa	Ikasketa maila	Kopuruak				% horizontalak			
		0 hizkuntza eskakizuna	1 hizkuntza eskakizuna	2 hizkuntza eskakizuna	Guztira	0 hizkuntza eskakizuna	1 hizkuntza eskakizuna	2 hizkuntza eskakizuna	Guztira
Araba	Guztira	496	216	5.072	5.784	8,6	3,7	87,7	100,0
	Publikoa	230	113	3.633	3.976	5,8	2,8	91,4	100,0
	Pribatua	266	103	1.439	1.808	14,7	5,7	79,6	100,0
Gipuzkoa	Guztira	674	326	12.187	13.187	5,1	2,5	92,4	100,0
	Publikoa	147	153	8.005	8.305	1,8	1,8	96,4	100,0
	Pribatua	527	173	4.182	4.882	10,8	3,5	85,7	100,0
Bizkaia	Guztira	1.965	792	15.206	17.963	10,9	4,4	84,7	100,0
	Publikoa	654	414	10.120	11.188	5,8	3,7	90,5	100,0
	Pribatua	1.311	378	5.086	6.775	19,4	5,6	75,1	100,0
EAE	Guztira	3.135	1.334	32.465	36.934	8,5	3,6	87,9	100,0
	Publikoa	1.031	680	21.758	23.469	4,4	2,9	92,7	100,0
	Pribatua	2.104	654	10.707	13.465	15,6	4,9	79,5	100,0

Iturria: Eustat; Siadecok landua, 2019

Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa dira eremu sozioekonomikoarekin lotura handiena duten ikasketa-mailak. Horietan sakonduta, hasteko, unibertsitateari dagokionez, EHUren Euskararen II Plan Gidariaren ebaluazio txostenaren arabera, 2016/2017 ikasturtean, ikasleen %68,3k egin zuen Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa edo selektibitatea euskaraz. Urte berean, ordea, EHUko ikasleen %51,5 matrikulatu zen euskaraz.

**47. taula** Azken lau ikasturteetan USE euskaraz egin duten ikasleen kopurua (n) eta ehunekoa (%)

Ikasturtea	Guztira (n)	Euskaraz (n)	Euskaraz (%)
2013/14	10.428	6.503	62,36
2014/15	10.937	7.228	66,09
2015/16	11.147	7.486	67,16
2016/17	11.303	7.720	68,3

Iturria: EHU, 2017

Gero eta gehiago dira USE euskaraz egiten duten ikasleak. Baina matrikulazioekiko aldea dago oraindik. Arreta jartzeko modukoa da, dena den, ikasketa motaren eta lurraldearen arabeko aldea, matrikulazio-hizkuntzari dagokionez. Izan ere, Hezkuntza fakultateetan %80tik gorakoa da euskaraz matrikulatutakoen ehunekoa (%100 Donostian).

Medikuntza, Erizaintza eta Zientzien arloko fakultateetan %40-%60 inguruan dabil euskaraz matrikulatutakoen ehunekoa, hiru lurraldeetan. Ikasketa teknikoetan eta enpresa eta ekonomia arlokoetan, aldea dago lurraldeen artean. %40tik behera geratzen dira euskarazko matrikulak Araban eta Bizkaian, eta %60 inguruan Gipuzkoan.

**48. taula** Euskaraz matrikulatutakoak (%)

	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Arabako Campusa	53,7	59	57,1	57,4
Farmazia Fakultatea	49,3	54	54,2	52,4
Letren Fakultatea	58,6	59,2	58,8	56,3
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Kirola)	79,3	76,2	72,3	85,2
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza)	80,3	85,3	85,3	93,4
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	23,4	43	24	37,7
Lan-Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea (Gasteiz)	57,6	69,9	63,7	57,9
Gasteizko Ingeniaritza eta Unibertsitate Eskola	28,5	29,9	23,7	22,9
Bizkaiko Campusa	41,3	42,2	45	45,6
Arte Ederren Fakultatea	41	40,1	41,2	34,8
Bilboko Ingeniaritza Eskola (I eraikina)	37,8	38,5	38,4	40,9
Bilboko Ingeniaritza Eskola (II eraikina)	33,9	35,5	42	41,9
Bilboko Ingeniaritza Eskola (III eraikina)	24,8	28,9	38,2	32,7
Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugaletxe eraikina)	18,2	38,1	39,5	31,4
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	77,4	78,5	79,3	83,6
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	31,2	31	32,9	35
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	18,2	28,6	29,1	27,8
Lan-Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea (Leioa)	25,2	17,8	27,2	27,4
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Erizaintza, Leioa)	38,2	36,2	52,1	46,3
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia)	43,6	39,2	44,6	42,2

	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Zuzenbide Fakultatea (Bizkaia)	36,3	37	30,1	34
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	56,7	55,7	57,2	59,4
Gipuzkoako Campusa	58,2	59	59,4	59,9
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	52	54,1	41,7	52,2
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa)	57,7	56,7	56	60,1
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	47,8	48,9	55,7	59,5
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)	72,6	74,3	69,3	55,7
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (I eraikina)	59,8	63,8	63,1	61
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (II eraikina)	98,5	99,2	100	100
Informatika Fakultatea	56,1	48,9	52,6	53,9
Kimika Fakultatea	62	67,1	66,3	58,5
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostia)	64,9	65,7	70,6	67
Psikologia Fakultatea	49,2	46,5	43	41
Zuzenbide Fakultatea	30,9	32,7	31	37,7
Guztira	48,1	49,8	51	51,5


Iturria: EHU, 2017

Lanbide Heziketan sakonduta, orokorrean D ereduan matrikulatutakoen ehunekoa baxua izanik, agerian gelditzen da Gipuzkoan ikasle gehiago ari direla euskaraz ikasten. Matrikulen ereduak guneko soziolinguistikoaren arabera aztertuta, D ereduko matrikulazioen pisua 3.guneko soziolinguistikoan nabarmentzen da (Kontuan hartu behar baita 4. guneko soziolinguistikoan Lanbide Heziketako eskaintza txikia dela: %1).

100

EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa:  
euskararen egoera

**33. grafikoa.** Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak hizkuntza ereduaren arabera, lurralde historikoari jarraikiz (%)




Iturria: Eustat, Siadecok landua

**49. taula.** Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak hizkuntza ereduaren arabera, lurralde historikoari jarraikiz (2017-2018 ikasturtea)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A eredia	5.430	81,3	12.360	73,7	4.972	39,6	22.762	63,2
B eredia	767	11,5	2.238	13,3	2.245	17,9	5.250	14,6
D eredia	486	7,3	2.183	13	5.344	42,5	8.013	22,2
Guztira	6.683	100,0	16.781	100,0	12.561	100,0	36.025	100,0
%		18,6		46,6		34,9		100,0

Iturria: Eustat, Siadecok landua

**34. grafikoa.** Matrikulazio ereduak guneko soziolinguistikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat, Siadecok landua

**50. taula.** Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak hizkuntza ereduaren arabera, gune soziolinguistikoari jarraikiz (2017-2018 ikasturtea)

	% 20 - % 50		% 50 - % 80		>= % 80		EAE	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
A eredua	20.390	75,3	2.372	27,8	0	0	22.762	63,2
B eredua	3.577	13,2	1.495	17,5	178	44,4	5.250	14,6
D eredua	3.114	11,5	4.676	54,7	223	55,6	8.013	22,2
Guztira	27.081	100,0	8.543	100,0	401	100,0	36.025	100,0
%		75,2		23,7		1,1		100,0

Iturria: Eustat, Siadecok landua

Fabrikazio mekanikoa da ikasle gehien dituen familia profesionala. Ikasle gehien-gehienak gizonezkoak dira (%92,4), eta ereduari dagokionez, ikasle gehien dituzten hurrengo familietan baino altuagoa da euskaraz matrikulatutakoen ehunekoa (%33,2). Elektrizitatea eta elektronika da hurrengo familia profesionala, non gizonezkoen pisua are handiagoa den (%94,9). Hizkuntzari dagokionez, aldiz, D ereduaren pisua hogeitun baxuagoa da (%13,4).

Osasunean eta administrazioan emakumeak dira ikasle gehienak (%75,4 eta %61, hurrenez hurren). Hizkuntzari dagokionez, euskarazko matrikulak ez dira %19ra iristen (%18,5 eta %18,6). Zerbitzu soziokulturaletan, aldiz, %44,6koa da euskarazko matrikulazioen pisua, eta emakumeak nagusi dira (%77,2).

Azpitarratzeko modukoa da euskarazko matrikulen ehuneko baxua ostalaritzan eta turismoan (%10,6) eta merkataritzan eta marketing-ean (%6,1), herritarrarekiko harreman zuzen handia daukaten familia profesionalak direlako.

**51. taula.** Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak familia profesionalaren arabera, hizkuntza ereduari eta sexuari jarraikiz (2017-2018 ikasturtea)


Familia profesionala	Lanbide Heziketa Guztira		Hizkuntza ereduak						Sexua			
			A ereduak		B ereduak		D ereduak		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop	% bert	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor
Fabrikazio mekanikoa	5.310	14,7	2.541	47,9	1.005	18,9	1.764	33,2	4.908	92,4	402	7,6
Elektrizitatea eta elektronika	3.758	10,4	2.530	67,3	724	19,3	504	13,4	3.565	94,9	193	5,1
Osasun Saila	3.701	10,3	2.599	70,2	418	11,3	684	18,5	909	24,6	2.792	75,4
Administrazioa / Administrazioa eta kudeaketa	3.517	9,8	2.428	69	434	12,3	655	18,6	1.373	39	2.144	61
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitate-erentzakoak	3.187	8,8	1.344	42,2	423	13,3	1.420	44,6	728	22,8	2.459	77,2
Informatika / Informatika eta Komunikazioak	2.833	7,9	1.964	69,3	397	14	472	16,7	2.566	90,6	267	9,4
Produkzio zerbitzua eta mantenimendua / Instalazioa eta Mantenimendua	2.479	6,9	1.146	46,2	608	24,5	725	29,2	2.367	95,5	112	4,5
Ostalaritza eta turismoa	1.869	5,2	1.554	83,1	117	6,3	198	10,6	1.072	57,4	797	42,6
Ibilgailu autopropultsatuen mantenimendua / Garraioa eta ibilgailuen mantentzea	1.744	4,8	1.222	70,1	88	5	434	24,9	1.692	97	52	3
Merkataritza eta marketinga	1.468	4,1	1.072	73	307	20,9	89	6,1	762	51,9	706	48,1
Irudi pertsonala	1.258	3,5	1.099	87,4	67	5,3	92	7,3	90	7,2	1.168	92,8
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	926	2,6	355	38,3	51	5,5	520	56,2	716	77,3	210	22,7
Komunikazioa, irudia eta soinua / Irudia eta soinua	665	1,8	493	74,1	25	3,8	147	22,1	493	74,1	172	25,9
Kimika	561	1,6	420	74,9	101	18	40	7,1	271	48,3	290	51,7
Arte grafikoak	522	1,4	490	93,9	32	6,1	-	-	294	56,3	228	43,7
Nekazaritzako jarduerak / Nekazaritza	492	1,4	275	55,9	47	9,6	170	34,6	419	85,2	73	14,8
Itsasoko eta arrantzako jarduerak / Itsas-arrantza	435	1,2	396	91	39	9	-	-	422	97	13	3
Eraikuntza eta Obra Zibila	396	1,1	322	81,3	74	18,7	-	-	272	68,7	124	31,3
Zura eta altzaria / Zura, altzaria eta kortxoak	328	0,9	134	40,9	124	37,8	70	21,3	282	86	46	14
Elikagaien industria	176	0,5	122	69,3	54	30,7	-	-	67	38,1	109	61,9
Segurtasun eta ingurumena	145	0,4	57	39,3	88	60,7	-	-	92	63,4	53	36,6
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	141	0,4	141	100	-	0	-	-	18	12,8	123	87,2
Energia eta ura	114	0,3	58	50,9	27	23,7	29	25,4	98	86	16	14
<b>Guztira</b>	<b>36.025</b>	<b>100,0</b>	<b>22.762</b>	<b>63,2</b>	<b>5.250</b>	<b>14,6</b>	<b>8.013</b>	<b>22,2</b>	<b>23.476</b>	<b>65,2</b>	<b>12.549</b>	<b>34,8</b>

Iturria: Eustat, Siadecok landua

Hezkuntzarekin lotuta, ikasketa-mailaren eta biztanleria landunaren euskararen ezagutzaren arteko lotura bat ere egin daiteke. Lan Merkatuaren Erroldako datuen arabera, hain zuzen, EAEko 15 eta 74 urte arteko biztanleria landunaren artean, euskaldunen ehunekoa gero eta altuagoa da ikasketa-mailan gora egin ahala. Lehen mailako ikasketak egin dituztenen %19 da euskalduna, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen %57,8.

Goi mailako ikasketak gero eta gehiago zabalitzen ari dira, eta horrekin lotuta dago datua, alde batetik. Baina era berean, adierazten du ikasketa-maila altuak eskatzen ez dituzten lanpostuetarako langile euskaldunak topatzea zaila izan daitekeela. Ostalaritzaren eta merkataritzaren eragozpenetako bat da hori, hain zuzen ere.

**35. grafikoa.** Euskararen ezagutza landunen artean, ikasketa-mailaren arabera (%)



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua




**52. taula.** 15-74 urte arteko landunen euskararen ezagutza maila, ikasketa mailaren arabera (%)

	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Ez euskaldunak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Lehen mailakoak	30.034	19,0	13.094	8,3	114.705	72,7	157.832	100,0
Bigarren mailakoak	34.091	28,0	12.735	10,5	74.718	61,5	121.544	100,0
Profesionalak	130.966	43,0	44.004	14,4	129.665	42,6	304.635	100,0
Unibertsitarioak	192.350	57,8	38.647	11,6	102.020	30,6	333.018	100,0
<b>Guztira</b>	<b>387.441</b>	<b>42,2</b>	<b>108.480</b>	<b>11,8</b>	<b>421.108</b>	<b>45,9</b>	<b>917.029</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

Landunen adinaren arabera aztertuta ere, ikusten da adinean aurrera egin ahala euskaldunen ehunekoak behera egiten duela. Baina kontuan hartu behar da 16-24 urtekoak landunen %4 inguru besterik ez direla. Eta 25-34 urtekoen artean, %81,2tik %61,7ra jaisten dela euskaldunen ehunekoa. Badirudi, beraz, azken hamarkadetan hezkuntzan egindako aurrerapenen eragina erlatiboa dela oraindik.

**36. grafikoa.** Landunen euskararen ezagutza maila, adinaren arabera (%)



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

**53. taula.** 15-74 urte arteko landunen euskararen ezagutza maila, adinaren arabera (%)

	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Ez euskaldunak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
16-24 urte	30.316	81,2	2.955	7,9	4.065	10,9	37.336	100,0
25-34 urte	101.282	61,7	16.058	9,8	46.879	28,5	164.218	100,0
35-44 urte	120.253	44,0	37.359	13,7	115.793	42,4	273.405	100,0
45-54 urte	86.471	32,6	34.581	13,1	143.916	54,3	264.968	100,0
55-64 urte	47.992	28,1	16.478	9,6	106.567	62,3	171.036	100,0
65 urte eta gehiago	1.127	18,6	1.049	17,3	3.888	64,1	6.064	100,0
<b>Guztira</b>	<b>387.441</b>	<b>42,2</b>	<b>108.480</b>	<b>11,8</b>	<b>421.108</b>	<b>45,9</b>	<b>917.029</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2017. Siadecok landua

### 5.16 Hizkuntza-eskakizunak lan-eskaintzetan

13.966 lan-eskaintza erregistratu ziren 2018an Lanbide euskal enplegu zerbitzuan. Eskaintza horien %4tan hizkuntzaren bat ezagutzea jarri zuen, baldintza gisa, eskaintza egin zuen entitateak. Aldiz, 13.966 eskaintzen %24tan, ezaugarri baloragarrien artean jarri zuten hizkuntzaren baten ezagutza.

Ezinbesteko baldintzen artean hizkuntzak jarri zituzten eskaintzen %52tan euskara eskatu zuten, %22tan ingelesa eta %2,2tan frantsesa. Gaztelaniaren pisu txikiak adierazten du jakintzat ematen dela, euskara ez bezala, biak hizkuntza ofizialak izanik. Hizkuntzak baloratu dituzten eskaintzetan, %58tan euskara baloratu dute, laurdenetan ingelesa eta %6,6tan frantsesa.

**37. grafikoa.** Ezinbesteko hizkuntzak eta baloragarriak, hizkuntzaren bat eskatu edo baloratu dutenekiko (%)



Iturria: Lanbide. Siadecok landua

Lurralde historikoaren arabera aztertuta, Gipuzkoan eskatzen da euskara gehien, Bizkaiaren eta Arabaren aurretik. Ezaugarri baloragarri gisa, ordea, Bizkaiari baloratzen da gehien. Sektorearen arabera, zerbitzuetan eskatu eta baloratzen da euskara gehien. Industrian, berriz, gehiago eskatu eta baloratzen da ingelesa, euskara baino.

**54. taula.** Lanbideko bulegoetan erregistratutako eskaintzetan zehaztutako hizkuntza-eskakizunak, lurralde historikoaren eta sektorearen arabera (%)

		Euskara		Ingelesa	Frantsesa	Alemana	Gaztelera	Beste hizkuntzaren bat
		Kop	%	Kop	Kop	Kop	Kop	Kop
<b>Ezinbesteko baldintza</b>								
Lurralde historikoa	Araba	14	5	10	1	1	1	2
	Gipuzkoa	180	63,8	51	10	6	6	4
	Bizkaia	88	31,2	59	1	1	1	2
Sektorea	Lehen sektorea	0	0	2	0	0	0	0
	Industria	8	2,8	14	0	0	0	0
	Eraikuntza	12	4,3	3	1	0	0	0
	Zerbitzuak	255	90,4	98	11	8	8	8
	Zehaztu gabe	7	2,5	3	0	0	0	0
Guztira		282	100	120	12	8	8	8
<b>Baloragarria</b>								
Lurralde historikoa	Araba	207	10,6	92	8	3	23	10
	Gipuzkoa	719	36,8	373	61	19	28	18
	Bizkaia	1.027	52,6	371	152	13	104	25
Sektorea	Lehen sektorea	10	0,5	2	1	0	2	0
	Industria	91	4,7	142	24	4	9	5
	Eraikuntza	40	2	18	2	0	5	0
	Zerbitzuak	1.777	91	660	190	31	132	45
	Zehaztu gabe	35	1,8	14	4	0	7	3
Guztira		1.953	100	836	221	35	155	53

Iturria: Lanbide. Siadecok landua

Bestalde, Lanbidek 1.448 ikastaro eman zituen iaz, horietatik 750 langabeentzat eta 698 landunentzat. Bakar bat ere ez zen euskaraz eman.

### 5.17 EAEko ekonomilarien ikuspuntua


2018ko abenduko azken Ekonometroak euskararen inguruko informazioa eskaini du. Ekonomilarien Euskal Elkargoak sei hilabetero argitaratzen duen konfiantzazko adierazlea da Ekonometroa. Aldiro errepikatzen den bloke bat dauka, emaitzak alderatzeko aukera ematen duena. Eta errepikatzen ez den beste bat, unean-uneko gaiak lantzen dituena. Oraingoan, euskarak enpresa eta lan munduan duen presentziaren inguruko iritziak jaso dituzte, Ekonometroan parte hartu duten hiru lurraldeetako 551 ekonomisten eskutik (kolektiboaren %12).

Inkestan parte hartu duten ekonomilarien erdia baino gehiago erabat ados edo nahiko ados dago euskara politika publikoen bidez sustatu beharrarekin (%53,5). Izan ere, iruditzen zaie merkatua ez dela bakarrik erregulatuko, hizkuntzari dagokionez.

Gutxiago dira euskararen sustapena enpresaren gizarte erantzukizunaren baitan kokatzen dutenak: %44 dago erabat ados edo nahiko ados baieztapen horrekin. Inkesta erantzun duten ekonomilarien %46,7k uste du euskara enpresetan baldintza moduan planteatzeak eragozpenak eta kostuak dakartzala.

Bereziki nabarmentzekoa da ekonomilarien ia %60k uste duela euskararen erabilerari emandako balio ekonomikoa mugatua dela, Euskaditik kanpo ez delako erabiltzen. Horrekin lotuta, zerbitzu hizkuntza zerbitzuaren ezaugarrien funtsezko osagaitzat du ekonomilarien %52k.

**38. grafikoa.** Ekonomilarien iritziak euskararen inguruan (%)



Iturria: Ekonomilarien Euskal Elkargoa, 2018



## 6.AMIA analisia

Diagnostikoaren aurreko atalak kontuan hartuta, Aukeren, Mehatxuen, Indarguneen eta Ahulezien analisisa laburbiltzen duen taula bilduta dator jarraian. Barne ezaugarrien analisisan, EAEko sektore sozioekonomikoarekin eta euskararekin lotutako indarguneak eta ahuleziak; eta ingurura, kanpora begirako analisisan, etorkizunerako aukerak eta mehatxuak.

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<b>B A R N E  A N A L I S I A</b>	<p>-Euskara ofiziala da 1978az geroztik.</p> <p>-Kontsumitzaileen eta langileen eskubideak aitortuta daude, legez, euskarari dagokionez.</p> <p>-Urteak dira erakundeek eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko programak martxan dituztela.</p> <p>-Metatutako esperientzia ugari dago: erakundeena, aholkularitza enpresena, enpresa traktoreena etab.</p> <p>-Euskara Planak aspaldi martxan dituzten zenbait enpresa handi daude. Erreferenteak sortzeko ekimen ezberdinetan parte hartu dute, gainera.</p> <p>-Industrian, EAEko langileen %42 euskalduna da, Lan Merkatuaren Erroldaren arabera.</p>	<p>-Enpresa eta establezimenduen multzo txiki bati baino ez diote eragin programa eta ekimen gehienek (%1).</p> <p>-Desoreka handia dago eragindako entitateen artean. Euskara planetan, bereziki, Gipuzkoako enpresa industrial handien pisua nabarmentzekoa da (Debagoiena-Mondragon taldea).</p> <p>-LanHitz programara bideratutako aurrekontuak behera egin du, baina eskaerek ere bai.</p> <p>-Erabiltzaile eta kontsumitzaileen aldetik zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaera txikia da.</p> <p>-Indarrean dagoen araudiak ez ditu kontsumitzaileen eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzen, ez delako betetzen (Dekretua bete behar luketenen %22k baino ez du egiten).</p> <p>-Euskara aurrekontuen pisu erlatiboa txikia da (%1). Are txikiagoa eremu sozioekonomikoa euskalduntzera bideratutakoa (Euskarazkoen %2,3).</p> <p>-Lanbide Heziketan euskaraz ikasten dutenen ehunekoa baxua da (%20). Helduen Hezkuntzan euskarak ez du presentziarik.</p> <p>-Kordinazio falta dago eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko lanean ari diren eragileen artean.</p>
	AUKERAK	MEHATXUAK
<b>K A N P O  A N A L I S I A</b>	<p>-Euskararen ezagutza gora egiten ari da, bereziki gazteenen artean.</p> <p>-25 urtetik beherakoen artean aldea txikia da, lurralde eta gune soziolinguistikoko batetik bestera, euskararen ezagutzari dagokionez.</p> <p>-DBHn eta Batxilergoan D eredua da nagusi (%67-%63).</p> <p>-123/2008 dekretuaren eraginpekoen %70ek uste du euskara nahiko edo oso garrantzitsua dela kontratazioetan. %70 dira, era berean, bezeroak euskaraz artatu ahal izateak abantailak dituela uste dutenak.</p> <p>-Dekretuaren eraginpeko enpresa eta establezimendu guztien kezka nagusia da kontsumitzaile eta erabiltzaileen beharretara ahalik eta azkarren moldatzea.</p> <p>-Lehiakideen aurrean euskara "ezaugarri bereizle" izan daitekeela pertzibitzen da.</p>	<p>-Lurraldeen artean desoreka handiak daude, errealitate soziolinguistikoiari dagokionez.</p> <p>-Enpleguari dagokionez pisu gehien duten eskualdeak ez dira euskaldunenak.</p> <p>-Inguruko errealitate soziolinguistikoak eragin handia du langileen euskara-gaitasunean, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskaeran ere bai.</p> <p>-Erabileran bakarrik ez, euskararen inguruko jarreraren eta iritzietan ere eragiten du inguruko errealitate soziolinguistikoak.</p> <p>-Hizkuntza handiak nagusitzen ari dira enpresa munduan, esportazioen eta lurraldetik kanpoko harremanen igoerarekin.</p> <p>-Elkargoko ekonomilarien %60k uste du euskararen balio ekonomikoa mugatua dela, Euskaditik kanpo ez delako erabiltzen.</p> <p>-Merkatu digitaletan hizkuntza handiak dira nagusi. Gehien kontsumitzen dena gazteleraz edo ingelesez dago.</p>